

Arrasate

P R E S S

1998ko
Martxoak 27
401. zenb.

Arrantza atzo, gaur eta bihar

30 GALDERATAN: FERNANDO SANCHEZ • IKUSPEGIA: IKER BARANDIARAN
KIROLAK: BONBÁ TALDEAREN BIDAIA • KULTURA: EUSKALKI IKASTAROA

egizabal

Oinetakoak
eta poltsak



Ferrerías, 9 • ARRASATE Tel.: 79 66 01

Bidekurutzeta, 13 • BERGARA Tel.: 76 12 28

Arrasateko Udala ere pozten da Arrasate Pressek argitaratu dituen 400 zenbakiengatik

Eskerririk asko eta ale askotarako

400
Zorionak Arrasate Press
Zorionak Arrasate
zenbakia



ARRASATEKO UDALA

Komunikabideak gerturatu

Azalean handi ageri ez bada ere, *Arrasate Pressek* 401. zenbakia atera du. Oraintxe bertan eskuetan daukazuna, hain zuzen. Zorionak, beraz, hari eta astekari hau egiten lanean (ibiltako eta) dabilen jende askori. Ezin uka daiteke herri komunikabideen aitzindarietako bat den honek duen



Iker Barandiaran

meritua, ibilbide luze honetan aurrera egitea ez baita lan makala.

Denon gustukoa ez bada ere, hain irakurleria askotarikoa eta zabalarekin asmatzea ezinezkoa baita. Bere tankerako beste aldizkari batzuek ez bezala (ez naiz guztiek ari), bere ibilbidean zehar hemengo errealitate desberdinak agertarazi ditu, nolabait edukiez zabaltxoa izaten saiatuz.

Herri osoari zuzendua dagoen heinean, bakoitzak bere orrialde edo atal gogokoan aukeratzen ditu. Beste askok jende ezagunaren bila ibiltzen dira argazkietan eta horren arabera

irakurtzen dute. Azken finean, herritar ia guztiek erabiltzen dute *Arrasate Press*, nola edo hala.

Sarri kritikatu izan bada ere, gehienetan izan da euskara hutsean kaleratzen delako. Horren kexu direnak betikoak dira. Ez dute aipamen gehiagorik merezi.

Gaiki jorrazteko eran arin xamarra dugu *Arrasate Press*. Ez da larregi bustitzen, konpromezu fatarengatik batzuetan, baina astekariak duen irakurleria zabalaren eta dirulaguntza ofizialen presioengatik bereziki, baldintza hauetan dauden prentsa fenomeno gehientsuak bezalaxe. Hala ere, nik dakidala behintzat, herriko giza mugimenduei ez zaie zuzenki edo nahita aterik itxi, iritzirik estali ezta zentsuratu ere. Bidezkoa deritsof honi. Alderantzikoa, beste komunikabide askotan ohitura bihurtu bada ere, penagarria litzateke.

Gainera, erakundeen pisua gainean badu ere, *Arrasate Pressek* ezin du

ahaztu kalean eta azken finean herrian egiten denaren protagonista eta egile nagusi diren giza mugimenduen lana ahaztu, hauena baita edozein herritako "bizitza"ren iturri garrantzitsua. Aholku oso garrantzitsu bat: ez da komeni ahaztea, giza mugimenduetatik eta orokorrean kaletik at dagoen jendearentzat, komunikabideetan agertzen ez dena ez dela existitzen. Sententzia hau komunikabide guztiei dagokie, nahiz eta beraiek aldarrikatzen duten gertutasuna dela eta, herri komunikabideen testuinguruan aipatu badut ere. Gehienek erabiltzen duten zentsura zuzenaz gain, nahigabe egindako konpromezu eta tratamendu faltaren erruz, izugarriko informazio hutsuneak ematen dira.

Egia da gaur egun dagoen informazio kopuru zenbaezina ez dela txantxetako, baina kazetariak erantzukizun handiagoa hartu beharko lukete aurrerago aipatu dudanarekin. Kalearekiko gertutasun eta konpromezu handiagoak komunikabideen sinesgarritasuna hobe dezake, dudarik gabe. ■



ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 77 05 65. Fax: 77 09 40
E-mail: arrasatepress@readyssoft.es

Laguntzaileak: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Jose Aranzabal. **Kazetariak:** Ixaro Zubillaga, Marian Porcel, Naiara Gorroño. **Publizitatea:** Kaittin Allende, Nerea Zallo (Tel.: 77 05 15). **Administrazioa:** Ikerne Alube (Tel.: 79 02 26). **Bisulak:** Txos Azumendi. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxeberria, Marta del Campo, Iban del Campo, Ixaro Artoia, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreurreta, Juan Luis Azkarate, Aitor Orobenkoa, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saila, ASA taldea, Eneko Allende, Besaide M. E., Karmelo Uribarren, Bixente Pagoga, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrahaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez, Kopti, Jon Ozasla, Jabi Luengo, Maite Barrena. **Banaketa arduraduna:** Jason Mendizabal-AED. (Tel.: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.300. **Legidunak:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Franko konfiantzatu. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunikizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Ignacio Perez.



Arrasateko Udaleren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailearen laguntza

401. zenbaki honetan

-1998ko martxoaren 27ean

Asteko agenda.....	4/5	Orain eta hemen ..	10/12	Kulturaren txokoa ..	28/29
Inkesta.....	7	Txutxumutxuak.....	14/15	Azoka plaza	30/31
Euren ikuspuntutik	8	Asteko gaia	17/19	Ikusi eta entzun	33
Astearen errepassoa.....	9	Kirolak jokoan.....	22/23	Fotozaharra	34

Ikuspegia

Iker Barandiaran **3**

Iritzia

Juan Antonio Barberan..... **8**

Kulturaren txokoa

Udazkeneko kultura eskaintza **26**

30 galderetan

Fernando Sanchez **26**

Aurrez aurre

Adrian Zelaia **30/31**

Asteko gaia

Arrantza..... **15/22**

Arrantza egiteko modua dexente aldatu da azken urteotan.



27
ostirala

■ ZINEA

Anastasia. Alai zineman, arratsaldeko 19:00etan. *Titanic*. gaueko 21:30etan.

■ MUSIKA EMANALDIA
GAZTETXEAN

Nuevo catecismo catolico eta *Teen Drogs* taldeek emanaldia eskainiko dute Arrasateko Gaztetxean, gaueko 21:00etan.

■ OÑATIKO
GAZTELEKUAN
EMANALDIA

El Desvan del Macho eta *Daisy Cutters* taldeen emanaldia Oñatiko Gaztelekuan, gaueko 22:30etan.

28
larunbata

■ .ZINEA

Anastasia. Alai zineman, arratsaldeko 17:00etan eta 19:30etan. *Titanic*, gaueko 21:30etan.

■ EL CASERIO ZARZUELA
AMAIA ANTZOKIAN

Jesus Guridiren *El Caserío Zarzuela* eskainiko da Amaia antzokian, gaueko 22:00etan. Chernobilen Lagunak elkarteak antolatu du ekitaldia.

■ BILERA MUSAKOLAKO
KIROLDEGIAN

Musakola eta Iturripeko kiroldegietako frontoiak, futbol, tenis eta squasheko kan txak alokatzeko bilera egingo da, Musakolako kiroldegian, goizeko 11:00etan.

■ UNAI ZUBIKARAIEN
ERRAUTSAK BESAI DEN

Unai Zubikarai mendi istripuz hil zen mendizalearen errautsak Besaiden zabalduko dira, eguerdiko 12:00etan.

29
igandea

■ ZINEA

Anastasia. Alai zineman, arratsaldeko 17:00etan eta 19:30etan. *Titanic*, gaueko 21:30etan.

■ ANDARTORA MENDI
IRTEERA

Besaideko Gazte Ekin tzak mendi irteera antolatu du Andartora. Autobusa, Garibaitik irtengo da, goizeko 09:00etan.

30
astelehena

■ ZINEA

Anastasia. Alai zineman, arratsaldeko 19:00etan. *Titanic*, gaueko 21:30etan.

■ ODOL EMATEA

Arrasateko Anbulatorioan, arratsaldeko 16:30etatik 20:00etara.

31
asteartea

■ ZINEA

Anastasia. Alai zineman, arratsaldeko 19:00etan. *Titanic*, gaueko 21:30etan.

■ ODOL EMATEA

Arrasateko Anbulatorioan, arratsaldeko 16:30etatik 20:00etara.

■ EUSKAL
NAZIONALISMOARI
BURUZKO HITZALDIA.

Gaia: Euskal Nazionalismoa. Hizlaria: Julio Araluze. Eskola Politeknikoan, arratsaldeko 19:00etan.

■ EUTANASIARI
BURUZKO HITZALDIA.

Gaia: Eutanasia. Hizlaria: Koldo Etxabe. Udaletxeako areto nagusian izango da, arratsaldeko 19:00etan. Arrasateko Hikak antolatu du.

Memesa
79 42 22

UGARAN
jatetxea
Garagartza auzoa
Tfnoa: 79 76 58
ARRASATE

Sipi Sipi
Martxa eta estilo
handiko erropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 79 81 82

● **Txitxinpe** ●
Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak
Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE • Tel.: 79 67 76

1 asteazkena

■ ARRASATE MUSIKALEN EMANALDIA.

Oboe eta gitarra emanaldia Arrasate Musikaleko areto nagusian, arratsaldeko 19:00etan.

2 osteguna

■ ZINEA

Grandes esperanzas. Alai zineman, gaueko 21:30etan.

■ 7 ESKALE TALDEAREN EMANALDIA

7 eskale taldeak emanaldia eskainiko du Amaia Antzokian, gaueko 21:00etan. Gazte Asteak antolatu du.

■ BENI UZKIANOREN ESKULANEN ERAKUSKETA

Monterronen, martxoaren 31 arte. Orduetgia: egunero 18:00etatik 20:00ak arte. Larunbat eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

■ NORK BERE BURUA EZAGUTU

Arrasateko Yoga Elkarteak nork bere burua hobeto ezagutzeko topaketak antolatu ditu. Saioak ostiraletan emango dira. Hasiera apirilaren 3an. Orduetgia: arratsaldeko 18:00etatik 21:00etara. Berri gehiagorako, deitu 79 88 53 edo 79 35 76 zenbakietara.

■ SAN ANDRES HERRI ESKOLAN KULTUR ASTEA

Martxoaren 30tik apirilaren 3ra arte, San Andres Herri eskolan kultura astea izango dute. Jolasak, antzerki emanaldiak, lantegiak eta hitzaldiak besteak beste izango dira ikasleentzat. Ekitaldiak gurasoentzako ekitaldiak ere antolatu da.

■ ARRASATE MUSIKALEKO BANDA

Apirilaren 4an Arrasate Musikalen bandak emanaldia

dia eskainiko du Amaia antzokian, arratsaldeko 19:30etan.

■ FAMILIA ETA GIZARTE HEZIKETARAKO ZENTRUAREN IKASTAROAK

IVA-IRPFri buruzko ikastaroa. 40 orduko iraupena. Saioak asteartetan eta ostegunetan izango dira, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara. Martxoaren 31n hasiera. *Liburu joste ikastaroa.* Asteartetan emango da, arratsaldeko 16:00etatik 18:00etara. Izena emateko, jo zentruko egoitzara.

■ ABDON JUARISTIREN OMENEZ ERAKUSKETA

Apirilaren 6tik 13ra arte, Arrasate eta Bergarako 70 bat artistaren lanak ikusi ahal izango dira Harresi aretoan, Abdon Juaristi zenaren omenez antolatu da erakusketa. Orduetgia: egunero 18:00etatik 20:00etara. Larunbat eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

■ PLAENTZIATARREN AFARIA

Apirilaren 3an, Arrasaten bizi edo lan egiten duten

Plaentziatarrek afaria izango dute. Iaz egin zen lehen aldiz eta izan zuen arrakasta ikusita, aurten errepikatzea erabaki dute. Izena emateko azken eguna ostiral honetan izango da. (Juanma 7713 64. Xabier 79 0900 eta Ignacio 79 04 11/ 79 38 13).

■ JARRAIK ANTOLATUTAKO GAZTE TOPAKETAK


Apirilaren 9tik 11ra, Jarraik antolatutako Gazte Topaketak izango dira Oiarzunen. Hara joateko txartelak Biona eta Irati tabernetan daude salgai. Prezioa: 4.000 pezeta. Ikasle eta langabetuentzat 500 pezeta. Langileentzat, berriz, 1.000 pezeta. Autobusa Garibaitik irtengo da, goizeko 09:00etan

■ BIDAIARI HANDIEN LITERATURA LEHIAKETA

Aramaioko Udalak antolatutako *Sagitario Sarira* Europako mendebaldera bidaiatu duen edozein pertsona aurkez daiteke. Parte hartzaileek bidaiari bizi izandakoa kontaketa literarioan azaldu beharko dute. Berri gehiago, Arramaioko Udalean.

IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 79 56 11
ARRASATE



MARKO-JARTZEAK ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 79 13 05 • Faxa: 79 13 84

LOS VAQUEROS

BERRITZE LANAK DIRELA ETA,
SEKULAKO PREZIOAK!!

Zerkaosteta, 5 • 79 97 55

- PEPE PEREZ 3 praka 5.995 pta.
 - Gizonezkoen poloak 1.495 pta.
 - Txanodun kirol-jertseak 995 pta.
- Eta 100 jantzi baino gehiago 495 pta.tan

Apirilaren 1ean hasiko gara eskaintza honekin!
Ez galdu aukera!

GORKA

ILEAPAINDEGIA

SOLARIUMA

Ferrerias, 35 ARRASATE
Tel.: 77 13 78

GUARDIAKO FARMAZIAK

- Ostirala 27
- Gaeuz: Morales. Araba Etorbidea.
- Larunbata 28
- Gaeuz: Azkoaga. Ferrerías.
- Igandea 29
- Gaeuz: Español. Iturriotz.
- Astelehena 30
- Gaeuz: Corcuera. Musakola
- Asteartea 31
- Gaeuz: Irizar. Erguin.
- Asteazkena 1
- 10ak arte: Amezua. Santamaina.
- Gaeuz: Estella. Bergara.
- Osteguna 2
- 10ak arte: Zabala. Zarugalde.
- Gaeuz: Moros. Bergara.

BEHARREZKO TELEFONOAK

- Eritetxeak**
- Arrasateko Eskualde-Ospit. 79 53 00
 - Igualatorria 79 05 00
 - Santa Agedako Ospitalea (gizonak) 79 39 00
 - (emakumeak) 79 44 11
 - Buru osasunerako zentrua 79 90 11
- Gurutze Gorria**
- Bergara 76 55 76
- DYA**
- Antzuola 78 71 57
- Anbulatorioak**
- Arrasate (Larrialdiak) 79 13 57
 - Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria 77 03 46
 - Espezialitateak 77 05 78
 - 77 12 64
 - Ohari 78 08 52
 - Eskoriatza 79 98 58
 - Aretxabaleta 79 74 58
 - Aramaio (945) 45 51 16
- Anbulantziak**
- Gipuzkoako ambulanziaz 45 87 44
- Udaitzaingoa**
- Ohari 78 04 11
 - Bergara 76 14 69
 - Arrasate 79 14 39
 - Aretxabaleta 79 10 52
 - Eskoriatza 088
- Ertzaintza**
- Arrasate 79 71 99
- Suhiltzaileak**
- Udal taldea 79 09 00
 - Udal taldeko suhiltzaile burua 79 20 72
 - Zubillagako Eskualde-Parkea 088
- Matxurak**
- Urak (udal zerbitzua) 79 09 00
 - Elektrizitatea (Iberduero) 12 01 62
 - Gasa 900 40 05 23
 - 79 78 44
 - 79 76 78
- Garraioak**
- Taxiak 79 12 22
 - PESA. 79 14 19
- Hirugarren adinekoendako zentruak**
- Iturbide Egoitza 79 72 11
 - Abaroa jubilatuen egoitza 79 81 57
- Kontsumitzailearendako informazioa**
- KIUB-OMIC 79 51 55
- Monterrongo liburutegia**
- Monterron. 77 01 05
- Irratia**
- Arrasate Irratia 79 58 77

POR FAVOR, PARA IR A VITORIA?

– Por Takolo, todo a la derecha.

Obrak beharrezkoak dira, herrian hobekuntzak egiteko, baina egiteko modua ere garrantzitsua da; une hone-tan, Arrasaten egiten ari diren obra nagusiak ikusita, esan daiteke badagoela dinamismoa.

Baina, gure udaleko arduradunek, ez dute ardura handirik euren garapenean. Otalora kalean, Kontzeziñon eta Takolon. Obra horiek egiten diren bitartean hartu (ez) diren neurriak ikusita, esan behar dugu hiritarron erosotasuna eta ziurtasuna bera ere ez zaiela batere ardura tripartitoko zinegotzietan eta gure alkate jaunari. Ahaztu egin dira, (inoiz konturatu badira) arrasatearrok herri honetan bizi garela hauteskunde garaia ere ez da ba eta!

Obra horiek egiten ari diren enpresei, neurri egoikiak hartzea esijitu behar zaiela. Oinez gabiltzanoi bereziki geure ziurtasuna eta kaletik ibiltzeko esku-bidea errespetatu behar zai-gula. Herritarrok, ezin dugu horma puska txiki bat erabili kartel bat ipintzeko. Baina Loiti jaunari bost ajola, konstruktoreak kaleak eurentzat hartzen badituzte, nahiz eta oinezko eta gidari, nondik pasa ez dakigula ibili jadanik hainbat hilabete-tan zehar. Non daude mugatuta obra eremuak?

Konstruktorearen gogora? Hiritarron kontura? Herri Batasuna moduan salatu nahi dugu, gainera, hainbat aldiz aipatu dugula kontu hau udal-letxean, baina mespretxurik handiena bakarrik jaso due-la gure eskariak. Herritar-ron ziurtasunagatik, espalo-oiak libre! Obrak bai, bai-na bide alternatiboak oinez-koentzat.

— “Por favor, para ir a Vitoria?”

— “¡ Por donde puedas , forastero!

Dongi, alkate balego sikiera!

Xabier Zubizarreta

KAIXO GRENOBLETIK

Granoblen dagoen ikas-
le arrasatear bat naiz eta *Arrasate Press* irakurtzen dut. Gertazten zaidana da aldizkaria oso berandu hel-tzen zaidala, normalean hila-beteko atzerapenarekin. Beraz, galdetu nahi dizuet ea posible den lehenago jasotzea.

*Arrasate Press*en kalitea asko hobetu da azken urte honetan, batez ere infor-mazioaren aldetik. Segi horrela!

Eskerrak aurretik eta hurrengora arte.

*Igor Errasti
Grenoble*

Lankide berria

Zenbaki honetan aspaldi-ko laguna aurkeztu nahi dizuegu: Txos Azurmendi diseinatzaile mondragoe-tarra. Bera izango da aurre-rantzean *Arrasate Presse*ko diseinu arduraduna eta maketagilea. Aspaldiko laguna diogu, gogoratuko duzue, Txos ibilia bai-ta *Arrasate Press*en urte eta erdiz. Azken aldi honetan multimedien inguruko ikastaroak eta lanak egiten ibili da. Ongi etorri berriz ere *Arrasate Press*era.

Goio Aranari, berriz, aguresan behar diogu. Bera



da, zalantzarik gabe, *Arrasate Press*en luzaroen lan egin duen profesionala. Bikain diseinaturiko aldiz-karia utzi digu. Baita lagun handi baten oroimena ere. Agur, Goio, eta nahi duzun arte!

ZUBIZARRETA LANTEGIAK

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tel.: 79 15 65

• ARTEA •

Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK
Laminak, ISpilua,
Margoak
Ferrerías, 11 Tel.: 77 10 95
ARRASATE

**OSORIK
PUB**

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

Zahartzaroan joango zinateke zahar etxe batera?



Patxi Sagar
(63 urte)
Jubilatua

Zahar etxeak tristeak dira. Zahartzaroa etxean igaro nahi-ko nuke.




Glori Olaskoaga
(56 urte)
Jubilatua

Ez dakit. Niri etxean geratzea gustatuko litzaidake. Hala ere, ez dut ezer zahar etxean kontra.



Miguel Angel Torres
(38 urte)
Langilea

Egoeraren arabera. Ondo banago, etxean geratzea gustatuko litzaidake. Ez banago, zahar etxe batera jango nintzateke.



Felix Cabezas
(68 urte)
Jubilatua

Beste erremediorik ez badago... ondo tratatzen dituzte zaharrak, beraz, joango nintzateke.



Bernardo Gonzalez
(37 urte)
Langilea

Arazorik gabe joango nintzateke. Etxean geratzea ideala da, baina gaurko gizartearen joera ikusita, zahar etxea ez da alternatiba txarra.



Elena Landa
(54 urte)
Etxeko andrea

Bai. Gainera ez dut uste espetxeak direnik. Eskaintzen dituzten zerbitzuak eta bakarrik bizi diren zahar askoren egoera kontuan hartuta, bost izarreko hotelak dira.



Nerea Bilbao
(14 urte)
Ikaslea

Ez zaizkit gustatzen zahar etxeak. Etxean hobeto!



Codes Martinez de Arenaza
(41 urte)
Langilea

Zahar etxeak eskaintzen duten kalitatea ezagutzen dut eta uste dut joango nintzatekeela. Bizitza lasaia eraman eta seme-alabei euren bizitza egiteko aukera ematen dute.

ORTO + LAGUN
O R T O P E D I A

Ondo ibili nahi duzu?
Zuri laguntzeko gaude

- Lanerako eskalapoia (zuekoak)
- Bizkarra zaintzeko faja bereziak
- Hanketarako plantilla bereziak

Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 79 89 34

beatriz

oinetakoak
eta poltsak

Erdiko kale, 11
Tel.: 79 14 33
ARRASATE

JUBAR
ATEAK. S.L.®

- BURDINAZKO ATEAK ETA PERTSIANAK.
- AUTOMATISMOAK.
- KONPONKETAK.

Kataide poligonoa, 18 • ARRASATE
Tel.: 79 10 20 • Fax: 79 08 17

USTEAK USTE

Misiolariak gurean

Asteartean bi mutil gazte agertu ziren Arkon. Dotore jantzita, garbi-garbi, ondo orraztuta, beren izenak paparrean eta amerikarrek bakarrik duten filmetako irribarrearekin. Oinarrizko euskaraz hitz egiten etorri ziren. Txutxumutxuetan duzue haien berri gehiago.

"Hau da hau, marka", esan nuen neure artean, "euskar misioen eguna igaro eta egun batzuetara, hementxe ditugu gu bide zuzenean sartzera datozen misiolari amerikarrak". Garai, Mendizabal, Markaide eta bestelako misiolari mondragotar gazteez gogoratu nintzen. Haiek ere Los Riosera joan zirenean gazteak ziren eta ilusioz beterikoak.

Lehen egia berdaderoaren jabe ginela uste genuen, baina orain asko dira gauza bera uste dutenak. Jehovaharen lekukoek mormoiaren konpainia dute orain eta laster hementxe izango ditugu mahomatarak, hinduak eta budistak. Eliza katolikoak galdu egin du monopolioa baina, Telefonik bezala, oraingoz abantailaz jokatzeko du.

Joxe Aranzabal

Eskola antzerkiaren jardunaldiak

Juan Antonio Barberan*

Azken urteotan bezala, 1997-98 ikasturtean zehar Eskola Antzerkiaren Jardunaldiak antolatuta dituzte Arrasateko Udaren Hezkuntza eta Kultura batzordeak, HH eta LH eta DBHko ikasleei begira. Lan horretan herriko ikastetxeen laguntza izan dute.

Jardunaldi hauen helburu nagusia ikasleengan antzerki zaletasuna sustatzea bada ere, ekimen horren bestelako xedeak haiek dira: arlo horren irakaskuntzari elementu aberasgarriak eskaintzea, ikasleak antzerkia ikasten ohitzea, Amaia antzokiko instalazioak barrutik ikasleei ezagutaraztea eta antzokiaren baliabideak zein azpiegitura erabiliz, ikasleek eginiko lanak gainerako ikasleentzako taularatzea.

Lehen aldia. Abenduan eta urtarrilean egin zen. Aldi horretan HH, LMH

eta DBHko 2.621 ikasleek lau antzerki talde profesionalak antzeturiko lanak ikusi ahal izan zituzten.

Bigarren aldia. Otsailen landu zen. LMHko seigarren mailako ikasleak eta antzerkigintza jakintzagai dutenak Amaia antzokiko instalazioak ezagutzen izan ziren.

Hirugarren aldia. Martxoan gertatu da. Institutua, Almen, San Viator eta La Merced ikastetxeetako DBHko lehen zikloko ikasleek prestaturiko *Asto Bat Hypodromoan*, *Egia Bazan Sar Dadila Kalabazan*, *Terri Bel-*

tza eta *Autobusean* antzezlanak taularatu zituzten Amaian bertan, LMHko ikasleen eta gurasoen aurrean.

Nahiz eta aldi bakoitzak bere ezaugarriak izan, hirugarrena izan da, nire iritziz, aipagarriena. Azpimarratze-koak dira ikastetxeek eskaini duten dedikazioa eta ilusioa. Saio dexente egin dituzte Amaia antzokiko arduradunen eta baliabide teknikoaren laguntzarekin. Horrekin batera, beren kasa prestatu dituzte beharrezkoak ziren jantziak, dekoratuak eta musika.


Ikus-entzunezko hedabideen aro honetan, telebistak eta bideoak erabiliz hurrentzat eta gaztetxoentzat hain produktu sofistikuatuak eta zenbaitetan irrealak egiten diren honetan, antzerkiak oraindik ere bere betiko balore hezigarriak eta kulturalak gordetzen ditu. Ia inolako bitartekotza teknologikorik barik, gauza da agertokia leku magikoa bihurtzeko, hitzaren hunkigarritasuna, giza ahotsaren intentsitatea eta gorputzaren adierazpena arte bihurtu eta modu ludikoan eskaintzen baititu.

Bukatu aurretik, bi azalpen: bata, hurrengo edizioa hobetzen saiatuko gara; bestea, eskerrak ematea ikastetxeei eta ikasleei ekintza honi eskaini dioten ahaleginagatik, haien laguntzarik gabe ezingo genukeen eta, hori guztia egin.

Sssshhh... gora teloa!

* Hezkuntza teknikaria

“Oraindik ere, antzerkiak bere betiko baloreak gordetzen ditu”



IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 79 99 61 • ARRASATE



astea bi hitzetan

■ Alde zaharra monumentu

Eusko Jaurlaritzak interes kultureko ondasuna izendatu zuen iaz Arrasateko alde zaharra. Aurten multzo monumentalala izendatu du. Hau dela eta, Udalak arkeologia ondareak izan behar dituz kontuan hirigintzako plan orokorrean eta, alde zaharrean lanak egin behar direnean, Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatu beharko baimena. Arrasaten 70 baino elementu gehiago daude ondare historiko-artistikoak direnak. Horietatik 30 hirigunean daude eta besteak auzoetan sakabanatuta. Alde zaharrean, parrokiak eta udaletxeak babes egoera berezia dute.

■ Udalari errekurtsioa jarri

Estatuko abokatuak errekurritu egin du iaz Arrasateko Udalak onartutako lan hitzarmena. Lan hitzarmen horren arabera, udal langileei soldata %1 igo zitzaizkien, baina Estatuko Aurrekontuen Legeak adierazten duenez, 97an funtzionarioei ezin zitzaizkien soldatarik igo. Arrasateko Udala ez da estatuko abokatuaren errekurtsioa jaso duen bakarra. Euskal Herriko hainbat udali eta Eusko Jaurlaritzari berari, errekurtsioak zabaldu dizkiete.

Eusko Jaurlaritzak, zalantzan jarri du estatuko abokatuaren errekurtsioa, esanez arazoa bere eskumenekoa dela eta ez estatuarena. EUDEL udal guztien defen-

tsa bateratua egingo duen edo ez eztabaidatzen ari da.

■ EAJren Uri Buru Batzarra

Arrasateko Eusko Alderdi Jeltzaleak kaleratu ditu Uri Buru Batzarra osatuko duten kideen izenak. Lehendakaria Agustin Ugarte izango da. Idazkaria Luis Mari Apraiz eta diruzaina Juan Jose Ugarte *Bermi*. Gainerako kideak hauek dira: Anton Aranbarri, Anton Azurmendi, Karmelo Errarte, Julian Garai, Cristina Larraza, Jesus Murgiondo, Jose Ramon Okina eta Sara Sagasta.

Hamaika izen horietatik bostek errepikatu egiten dute. Gainerako seiak berriak dira. Uri Buru Batzar honek bi urteko agintealdia izango du.



“Mondragon Kooperatiba Korporazioak bidelagun onak bilatu zituen iaz, bere hazkundera sendotze aldera. MCC Garapena antolatu zuen, euskal erakundeekin eta hainbat finantza erakundeekin batera. Elkarte hau 8.000 milioi pta.ko kapitalarekin jaio zen. Diru hau beste konpainia batzuetan partizipazioak hartzeko edo MCCk babesturiko enpresa berriak sortzeko erabiliko da.

Gainera, dibisio berri honek hiru urterako elkarlanean hitzarmena sinatu zuen Nafarroako Gobernarekin, garapen kapitalerako funtsa sortzeko, 1.000 milioi pta.rekin. Diru honek ere enpresa berriak sustatzeko balioko du”.

Cinco Dias,
1998ko martxoak 13

HIRUGARREN ESPARRUA

Rafa Diez LABeko idazkari nagusia eta Ramon Zallo Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea Arrasaten izan ziren joan den asteartean, hirugarren esparruaz hitz egiten. Zutik taldeak argitaratzen duen *Hika* aldizkariak antolatu zuen mahai ingurua. Ramon Zallok arazoak izan zituen Arkora iristeko. Eta hori Arrasaten bizi izan zela urtebete eta erdiz, klan-destinitate garaian...



AREITIO

Kirolzalea bazara

zatoz AREITIO KIROLAKera

Arrantzarako behar duzun guztia hementxe daukazu

Zarugalde, 35
ARRASATE
Tel.: 79 38 38

Lagun Arok batzar nagusia

Lagun Aroren batzar nagusian, bazkideen interesa piztu zuten bi gai garrantzitsu aztertu ziren: aurrejubilazioak eta Gizarte Segurantzarekiko elkarlan hitzarmena.

Aurrejubilazioei dago-kienez, lanean hasi dira arazoari irtenbideak emateko.

Gizarte Segurantzarekin egindako hitzarmenak finantzaketa era aldatu du. Hemendik aurrera, gastua aurretik egingo du Lagun Arok eta gero, administrazioak bueltatuko dio dirua. Jesus Goienetxek hitzarmen berriak ez duela arazorik sortuko esan zuen.

Bestalde, 97ko emaitza ekonomikoak inoiz baino hobek izan direla azaldu zuten Lagun Aroko zuzendariak. Hau dela eta, bazkide mutualista guztien pensioen balioa handitzeko ahalginak egingo dituzte hemendik aurrera.



Mendia zuen maite eta mendian joan zitzaigun.

Unai Zubikarai mendizale gaztea Pirinioetan hil da

Aste Santutan Mont Blanc-era joateko asmoa zuten. San Josef jaiak aukera ona eskaintzen zuen entrenamendua areagotzeko. Horregatik, Unai Zubikarai eta Joxe Martin arrasatearrak Benasquera joan ziren, Huesca probintziara, Aizarnazabalgo Iñaki Aiarzarekin batera. Inguruko mendi batzuk egiteko asmoa zuten.

Ostiralean Gours Blanc mendira abiatu ziren. Eguerdi inguruan goian ziren. Gai-lurrean ordu pare bat igaro eta gero, beste alde batetik jais-tea erabaki zuten. Jaitsiera bukatzeaz zirela, instant batean, Unai estrapuz egin eta amildu egin zen 80 metroko

zulo batean. Joxe Unai bere onera ekartzen saiatzen zen bitartean, Iñakik aterpera jo zuen laguntza bila. Unai konortea galduta zegoen, burua kolpatuta. Guardia Zibila erreskate operazioa antolatu zuen eta helikopteroz eraman zuten zauritua Huescako San Jorge ospitalera. Hala ere, ordurako hilda zegoen.

Unai Zubikarai 24 urte zituen. San Frantzisko Xabier ikastolan ikasitakoa zen. Ikasketak amaitu eta gero, aitarekin hasi zen lanean, arozte-gian. Bere lagunek esaten dutenez, isila zen eta behar-gina.

Mendia maite zuen bere-

ziki. Egunero lanetik irten eta mendira joaten zen. Unai Zubikarai, beraz, ez zen hasi berria mendian. Besaide taldekoa zen, federatua eta makina bat ikastaro egindakoa. Udalatx zuen entrenatzeko mendirik gogokoena: bere koadernoan idatzita zuenez, iaz 53 aldiz igo zuen. Egun batzuetan hiru eta lau aldiz igo zuen.

Unairen heriotzak zirrara handia eragin du Arrasaten. Astelehenean jende mordoa bildu zen hiletan elizkizunetara. Gorpua erraustu egin da, Erreterian. Errautsak Besaiden zabalduko dira bihar, hilak 28, eguerdiko 12:30etan. Nahi duena joan daiteke.

Jaiotzak

- Markel Moron Sanz. Martxoaren 8an.
- Ane Mateos Estrella. 10ean.
- Maite Lasa Calleja. 11n.
- Aratz Arsuaga Guezmez. 11n.
- Izar Ijurrea Goñi. 11n.

Hildakoak

- Francisco Quiroz Cunha. 86 urte. Martxoaren 12an.
- Encarnacion Corres Perez de Nanclares. 81 urte. 12an.
- Maria Asuncion Aranburu Bidaburu. 75 urte. 12an.
- Rosalia Castellanos Aspiazu. 86 urte. 13an.
- Juan Maria Aiastui Arrieta. 56 urte. 17an.

AEDk, Ekin taldeak eta Txatxilipurdik batzar orokorrek egin dituzte

Bertsogintza, sentsibilizazioa, Gazte taldea eta Hegoaxe taldea. Horiek dira AEDk aurten indartu nahi dituen lau ardatzak. Berrikuntzak ere aurreratu dituzte. Bertsogintzan helduentzako eskola finkatu da. Gazte taldekoek gazte topaketak egingo dituzte udazkenean eta Hegoaxe taldeak Iparhaxe astearen antzeko egitaraua prestatuko du. Bestalde Mendizale Elkartearekin ere, Mugarrien jai berria antolatuko du AEDk irailean.

Bestalde, AEDk urtero antolatzen dituen literatura lehiaketak eten bat izango du. egun aproposak bilatzeko asmoz.

AEDk ahalegin berezia egingo du, aurten betetzen dituen hamabost urteak ospatzeko. *Ametsa eraikiz doa* da urteurrenaren leloa. Helburua, berriz, zera da: euskara arrasatearren bilgune eta etorkizuneari elkarlanerako oinarria izatea. AEDren urteurrena den honetan, Txatxilipurdik ere hamar urte betetzen ditu. Elkarrekin hainbat ekitaldi egingo dituzte: jai erraldoia, bazkide bazkaria, erakusketak, musika gaua eta bazkide kanpaina, besteak beste.

Herriko euskaltegiekin batera, Zahar Berri programari ekingo dio AEDk. Horretarako, leku berria egokituko du San Joan auzoan. Etor-kizuneko erronka Arrasateko hizkuntza aztertzea izango da.

EKIN EMAKUME TALDEA

Ekin Emakume taldeak helburu nagusi bat du: elkarte emakume langileei eta auzo-



Txatxilipurdiren X. urteurrena eta AEDren XV.ena ospatuko dira aurten.

etakoei zabaltzea.

Emakume gazteagoak erakartzeko ahalegin berezia egingo du. Horretarako, Ekine antolatutako ekitaldien ordutegia moldatuko dute. Orain arte, arratsaldeko 15:00etan egin izan dituzte ikastaro eta ekitaldi gehienak, etxeko andreen ordutegian pentsatuz. Hemendik aurrera, ordea, arratsaldeko 18:00etan ere egingo dituzte, emakume langileak ere joan ahal izateko. Bestalde, auzoetako emakumeengana iristea izango da Ekinen beste erronka. Udaleko Emakume Sailak programaren aurrekontua onartu zuen eta dagoeneko Garagartzako eta Gesalibarko zenbait emakumek parte hartzen dute taldeak antolatutako ekintzetan. Auzoetako ekitaldiak arrakastatsuak dira.

Orain, Udala eta Bedoñako emakumeen beharrak aztertuko dituzte, euren interesetara egokitutako ekitaldiak antolatzeko.

TXATXILIPURDI

Txatxilipurdik hemendik aurrera izango dituen helburuak finkatu zituen batzar orokorrean. Horien artean taldea gorpuztea, epe luzerako planaren diseinua egitea eta X. urteurrena ospatzea.

Txatxilipurdi pozik agertu zen egindako lanarekin. Ludotekak, gaztetxokoak, udalekuak edo Txikilandiaz gain, bestelako ekintzarik ere antolatu baitu, arrakasta handiz: eskulanean eta bailarako ipuin zaharren bilduma, aisialdia eta eskola proiektua. Horrekin batera, bulego bat zabaldu du Musakolan.

Hemendik aurrera, dena den, izango dute beste erronkarik.

Aipagarriena Txatxilipurdiren gorpuztea izango da. Taldea trinkotu nahi da eta horretarako berregituraketa egingo da.

Berregituraketa honek, Txatxilipurdiren lan egiteko era hobetuko luke. Izan ere, lagun asko baitira taldearen inguruan lan egiten direnak. Kontratupeko langileak hamar dira, urtean zehar ehun begirale inguru kontratatzen dituzte eta 2.000 haurrek hartzen dute parte taldearen ekintzetan.


Aurten ere, Txatxilipurdik 10 urte betetzen ditu. Ekitaldi mordoxka antolatuko ditu AEDrekin batera eta horiez gain, Txatxilipurdik ospakizun berezia egiteko asmoa du udalekuen garaian.

Arrasateko herri ekimena presoen aldeko kale agerraldira

Presoen Euskal Herriratzearen Aldeko Arrasateko Herri Ekimenak dei egin die arrasatear guztiei apirilaren 5ean Bilbora joan daitezzen, euskal presoen Euskal Herriratzeari eskatzeko Ibaeta Plataformak antolatutako duen kale agerraldira.

Arrasateko taldeak bat egin du Ibaeta Plataformak —Mariano Ferrer kazetariak eta beste askok osatua— kale agerraldia antolatuzeko azaldu dituen arrazoiekin. Honek gogorarazi duen moduan, Eusko Legebiltzarrak 96ko urrian onartu zuenaren kontra, euskal presoen sakabanaketa indarrean dago oraindik, oztopatu egiten da presoen baldintzapeko askatasuna edo erremediorik gabeko espetxeratu gaituen kalera-raztea. Horrezaz gain, Espainiako eta Frantziako gobernuak ez dute bat ere kontuan hartzen Eusko Legebiltzarren erabakia.

Arrasateko taldeak eta Ibaeta Plataformak uste dute ordua dela berriro ere inda-



Arrasateko taldeak bat egin du Ibaeta Plataformarekin.

rra egiteko, bidegabekeria honi amaiera emate aldera.

Arrasateko taldea honako lagun hauek osatzen dute: Jose Antonio Altuna, Bittor Aranzabal, Jose Ramon Elorza, Agustin Mondra-

gon, Manuel Quevedo eta Luis Sagasta. Abenduan sortu zuten taldea eta Santo Tomasetan sinadura ugari bildu zuten herrian, euskal presoen Euskal Herriratzeari eskatzeko.

Guardiako farmaziak herrian

Osakidetzak debekatu egin die Arrasateko eta Bergarako farmaziei orain arte egiten zuten moduan, bi astez behin goardiako txandak egitea. Orain sei urte, Bergarako eta Arrasateko botikarioak goardiako txandak egiten hasi ziren bi astez behin. Sistema horren arabera, Arrasateko botikarioek hileko lehen hamabost egunetako goardien ardura hartzen zuten eta Bergarakoek bigarren hamabostaldikoenena. Hemendik aurrera, berriz, Arrasateko zortzi botikek herriari dagozkion goardiako zerbitzu guztiak egin behar dituzte, hil osoan zehar.

Gipuzkoako Botikarioen Elkarteak, bestalde, oraindik ez du Osakidetzaren erantzunik jaso Arrasaten farmazia larrialdietarako zerbitzu zentralizatua jartzeko proposamenari. Zerbitzu honek Deba Garai osoari emango lioke zerbitzua.



Lehen



Orain

MIREN GARAIren zentru mediku-estetikoak Peeling-gaztetze-tratamendu berria jarri duela jakinarazi nahi dizue.

Horretaz gain:

- Gizentasunaren kontrako tratamendua, dieta pertsonalizatuekin.
- Barize tratamendua.
- Kirurgia estetikoak (bularren handitze edo txikitzea, liposukzioa, eta abar.)

Ramon Aginaga doktoreak egina.

Eta era guztietako tratamendu estetikoak: depilazioa, aupegiko azalaren garbiketa, depilazio elektrikoa (betirakoa) Blenz sistemarekin, etab.

Martxoan eta Apirilean solarium-eko 10 sesiotako eskaintza berezia: 8.000 Pta.

MIREN GARAIEN ESTETIKA ZENTRUA

Zarugalde kalea, 23.zkia. 2.ezk. • 79 96 90

Gida 98

Leintz Bailarako profesional eta zerbitzu guztiak zure esku.

Aurkitu duzu akatsik?


Dei egin 77 08 15 telefonora.
Laster beste orri bat argitaratuko dugu zuzenketa eta guzti.



ARRASATE

AKADEMIAK

Hizkuntza Akademiak



AHIZTE CIM
Koop. E.

HIZKUNTZAK/DIOMAS

HIZKUNTZAK IKASI NAHI DITUZU? ESKATU:

• Profesionalasuna • Kallitatea • Serioasuna • Espenientzia • Emailtzak
CIM-ek horren garrantia ematen dizu

"Zanoz gu ezagutzera"

Bulego ordulegia, 9ralik - Ielara eta 4elalik - 8elara

Araba Etorbidea, 4 • ARRASATE • Tel.: 71 20 55 Faxa: 71 21 81

AUTOAK

Zentruak

VIPAUTO

Eroski Zentru komertziala.....79 16 55

BAINUAK

NEKER

Elkano, 4079 89 67

ELKARTEAK

Gazte elkarteak

ARRASATEKO HITZA ETA EKINTZA, Azoka kalea, 177 07 09

HARATEGIAK

ROSI, Azoka, 17. postua79 19 01

LANTEGIAK

RONEO S.A. Kataide poligenoa77 14 44

OSASUN ZERBITZUAK

Masajeak

HERIZ, JOSEBA, Zangaldea, 2879 26 13 / 939 06 98 51


NEKER

Bainugelak • Berogailua • Gas-a

Zure bainugela diseinatuko dugu!

Elkano, 40
ARRASATE
Tel. / Faxa: 79 89 67

Obrak egin aurretik erakutsiko dizugu zure bainugela!



DBHko 1. zikloko ikasleek aktore onak izan daitezkeela erakutsi zuten joan den astean. Arrasateko Kultura eta Hezkuntza sailek antolatutako antzerki jardunaldiei amaiera emateko, San Viator, Institutua, La Merced eta Almen ikastetxeetako ikasleek antzerki bana taularatu zuten Amaia antzokian. Ikusleek barre dexente egin zuten!

ra emateko, San Viator, Institutua, La Merced eta Almen ikastetxeetako ikasleek antzerki bana taularatu zuten Amaia antzokian. Ikusleek barre dexente egin zuten!



AMAIA ANTZOKITIK BROADWAY-RA

MISIOLARI AMERIKARRAK

Elder Kurtiz eta Elder Lowe 20 eta 21 urteko amerikarrak dira. Lehena Arizonakoa da eta bigarrena Utahkoa. Hain gazte izanda ere, misiolariak dira, Azken Egunetako Santuen Jesu Kristoren Elizako misiolariak.

Kontua da euskaraz dabiltzala Jainkoaren hitza zabaltzen. Horretarako nahikoa izan dute hemeretzi orduko ikastaro trinkoa hartzea.

Hortik aurrera, jendearekin hitz egiten ikasten ari dira.




ARRASATEKO ABENTURAZALEAK

Ez da urrutiko paraheetara joan behar abentura zoragarriak bizitzeko. Lontxo Altube, Ugarte senar-emazteak eta argazkiko bi gazte arrasatearrak Oñatiko Arrikruz leizeko zirrikitu batetik sartu eta lurrazpian izkutatutako edertasunaz disfrutatu zuten. Ibilaldia Amet espeleologia taldeak antolatu zuen eta 50 bat lagun joan ziren. Lurrean etzanda, 25-30 metro egin zituzten, hiruzpalau aldiz gerriraino izan zuten ura eta historiaurreko lehoien haztarnak ikusi zituzten. Lokatzez belarrietaraino irten ziren bai, baina seguru asko ez dute eguna sekula ahaztuko.

GAMMA

- ELEKTROLOGIA ZENTRUA
- BEHIN BETIKO DEPILAZIOA

Aurpegi eta gorputzerako tratamendua • Doaneko kontsulta
Maalako Errabala, 17, 1.A • ARRASATE • Tel: 79 51 25



EGUZKIGRAF

inprimategia



Industrialdea F-0-4
Telefonoa: 791844
Faxa: 792944



AIZKORAK CLEMENTEREKIN

Aizkora koadrilakoek "Aizkora eguna" ospatzen dute urtero. Aurten, derby eguna aprobetxatuta, Usurbilera joan ziren bazkaltzera, gero Anoetara joateko. Saltxipi jatetxean sartu eta hara nor zegoen han: Barakaldoko txikia. Clementek genio txarra duela esaten dute, baina Arrasateko Aizkora koadrilakoek —bazkalostean eta kopatxo batekin, behintzat— oso sinpatikoa dela egiaz-tatu zuten. Argazkian: Eugenio Yarritu, Athletic-eko jarraitzailea eta Jose Mari Etxabe, Reale-koa, Javier Clementerekin.

San Vitorreko batxilergoko talde honek urteko bidaia egin nahi eta Salamancara joateko egitaraua prestatu zuen. Hotela

bilatu, bisitaleluak aukeratu eta lau egunez izan ziren hiri zaharrean. Oroitzapen onak ekarri dituzte handik.

SALAMANCARA



IZENA

Ander Elortondo

28 urteko arrasatearra, Txatxilipurdi-ko Zuzendaritza batzordeko kide berria da. Ander administrazio laguntzailea da eta Arrasateko Udalean egiten du lan.



Rufina

Olasagasti

izango da datozen bi urteetan Ekin Emakume Taldeko lehendakaria. Soziologian lizentziatu zen Lovaniako Unibertsitatean, Belgikan. Gaur egun Bergarako Udalean egiten du lan, Kultura kudeatzaile moduan.

BITTORI ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua
Especialitateak: legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 79 55 82



Zuri
Garbiketak

- Garbitasun orokorrak eta mantenimendua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

Santana auzoa, 4 etxabea Tfnoa: 71 48 45 ESKORIATZA

Datorren astean berri onak Arrasate Pressen

- Zerbitzu osatuena eskaintzeko.
- Komunikazio gertuena izateko.
- Hemengo eta inguruko berririk freskoenak apirilaren 3an.

**Arrasate Pressekek 400 zenbaki bete ditu.
Datorren astetik aurrera aro berria irekiko dugu.**

Arrasate Telebista. Etxekoa.

- Astelehenean Itxaro Zubillagak asteburuko kirolen berri ematen dizu Mondrasport saioan.
- Asteartean kulturaren ordua. Maier Urangak Lotsa Barik aurkezten du. Hamabostean behin, berriz, hemen dituzu Unai Iparragirre, Maria Agirre, Aitziber Langaran eta Oihana Altuna Kaleidoskopioan.
- Asteazkenean Munduari Buelbaka, Elene Alberdirekin. Hemengo gorabeherak, ostera, Tertulixan eta Alkatearekin Berbetan saioetan.
- Ostegunean gaztetxoaren ordua: Kukaratxa Motel dator, Betirtze Iñurritegi eta Alazne Ruiz de Munainekin.
- Ostiralean errepassoa egiten diogu asteari Aste Bete saioan.
- Asteburuetan ere hortxe duzu ATB zure etxean.
- Larunbat eguerdiko 13:00etatik 15:30ak bitartean, asteko programarik interesgarrienak ikus ditzakezu.
- Ahaztu barik, noski, Berriak eguneroko albistegia, Naiara Gorroñok aurkezten duena.

Arrasate Telebista,
zure telebista,
herriko telebista.





Martxoaren 15ean arrantzalez bete zen Aramaio erreka.

Oinik busti barik, arrainik ez

**Erreka bazter edo urtegieta-
rurbilduz gero, makina bat
arrantzale ikusiko ditugu kai-
nabera eta gainontzeko tres-
nak hartuta ezkailu, amuarrain
edo lutzoren batekin etxera
buelatzeko gogoz.**

**Arrantza denboraldia mar-
txoaren 15ean hasi zen. Ingu-
ruko arrantza zaleek ederki
aprobetxatu zuten denboral-
diaren irekiera. Iraila bitar-
tean, inguruko urtegiek eta
ibaiek arrantzaleen bisita
jasoko dute.**

Baina arrantza kon-
tuetan gauzak dexen-
te aldatu dira. Maa-
lako okindegi pare-
ko zubi azpian ain-
girak hartzea eguneroko gau-
za zela esanez gero, batek bai-
no gehiagok ez luke sinetsi-
ko. Edo Kontzeziñon zegoen
presan karramarro ugari zego-
ela irakurtzean, adar jotzea
dela pentsa lezake gazteren
batek. Baina ez; halaxe zen.
Azken hogeita hamar urte-
tan ez gara gauza izan gure

errekak zaintzeko. Zabortegi
moduan erabili ditugu, esta-
liz, desbideratuz eta aberas-
tasun guztia galaraziz. Honek
ibaien inguruko ohiturak era-
bat aldatzea ekarri du. Arran-
tzaren inguruan hainbat garai
bereiz ditzakegu.

ARRANTZA ATZO

Jesus Moreno mondragoeta-
rrak lantegitik irten eta afari
kapritxosoa egin nahi zuene-
an, amari afaririk ez presta-
tzeko esaten zion. Etxeostera

jaitsi, errekan sartu eta ezkai-
lu sortarekin igoten zen sukal-
dera. Hau 1950. urte inguruan.

Jesussek txiki txikitatik
izan du arrantzarekiko zale-
tasuna. Erreka ingurutik pasa-
tu eta arrainen bat somatuz
gero, ezin tentazioari eutsi.
Zegoen moduan, domeketa-
ko arroparekin bazen ere,
errekara salto egin eta eskuar-
tean zerbait zuela irteten zen.

Jesussek dioenez, Arrasa-
ten erreka aberatsak genituen.
Herria alde alde zeharkatu eta

estali gabe zeuden. Erreka bat Aramaio zen, izen bereko herri-tik datorrena; bestea Deba, Gatzagatik datorrena.

Otaloran hasi eta Maalarraino, Aramaio erreka oso aberatsa zen loina, ezkailu eta aingiratan batez ere.

Maalako zubi azpiak altxor berezia gordetzen zuen: aingira ugari biltzen ziren han.

Kontzeziñotik zehar Gatzaga erreka pasatzen zen. Hemen presa bat zegoen eta amuarrainak, aingirak eta karramarroak ziren ugari.

Baina arrantza egitea ez zen gauza erraza: Guardia Zibilaren koartela gertu zegoen eta adi-adi ibili beharra izaten zen! Horregatik, arratsaldeko 14:30etan, guardia zibilek bazkaltzen zutenean, aprobetxatzen zuen Jesusek erre-kara jaisteko.

APOSTUA

Herrian ezaguna zen Jesus Morenoren arrantzarako grina. Hau dela eta, Jesus eta lagun-nen artean apostua egiten zuten urtean behin: ea zenbat loina hartzen zituen Jesusek herri-ko errekan.

“Lagunak gaueko hamai- ketan biltzen ginen. Neu baka- rrik sartzen nintzen erre-kara, besteak begira egoten ziren. Apostua egin genuen azken urtean hogeita hamahiru doze- na eta erdi loina hartu nituen. Inork ikusi ez zitzaizkizun, eta zaku batean sartzen nituen. Hau 1952. urtean izan zen, azkenengo aldian”.

KAINABERARIK GABE

Jesusek behin erabili zuen kainabera, baina oso asper- garria iruditu zitzaion. Berak horretarako pazientzarik ez duela aitortzen du. *Sarea* eta *trasmaia* erabili ditu. Garai haietan ez zeukan dirurik sare- ak erosteko eta zakuekin egi- ten zituen sareak. Trasmaia erre-karen zabalera duen sare antzekoa da. Erreka azpian sartu eta harriak jaso behar



1960. urtean hasi ziren Deba ibaia desbideratze lanak Arrasaten.

izaten dira. Arrainak trasmaia barruan geratzen dira. Gaur egun ere horrela segitzen du Jesusek.

50. hamarkada bukaeran erre-kak noizean behin erre egiten zirela gogoratzen du Jesusek, lantegiren batetik azidoa botatzen zutenean. Baina berehala garbitzen zen berriz,

eta arrainak berriro agertzen ziren.

Baina 60. urte inguruan ibaien desbideratze lanak hasi ziren, kutsadura gero eta larri- gotzen zihoan, eta poliki-poli- ki arrantza galduz joan zen.

Orduan Jesusek beste para- je batzuk bilatu behar izan zituen. Arrasate ahaztu eta

Araba aldera jo zuen.

Oraindik “deabrukerixak” (berak dioen moduan) egiten segitzen du ibiltzen den erre- ketan. Hala ere, izkutuan gor- detzen ditu bere txoko bere- zikiak. Urriak dira eta ezin hemen kontatu.

Naiara Gorroño

Lantegitik irten eta afari kapritxosoa egin nahi zuenean, etxeostera jaitsi, errekan sar- tu eta ezkailu sortarekin igoten zen sukalde- ra. Hau 1950. urte inguruan.

ARRANTZA GAUR

Arrantzale amorratua da Josu, eta egutegian maiztaren 15a aspaldidanik azpimarratua zuen. Igan-de hartan, goizean goiz kainabera hartu eta Landa aldera egin zuen ihesi. Etxera pozik bueltatu zen, bi kiloko lutxo hartu ondoren. Ongi estreinatu du Josuk aurtengo arrantza denboraldia.

— Non egiten duzu arrantza?

— Urtegitan egiten dut: Landan eta Albiñan

batez ere. Hasieran errekan egiten nuen, baina jende gehiegi biltzen da orain erreka inguruetan. Gainera, gero eta kutsatuago daude eta hori izugarri nabaritzen da. Urtetik urtera arrantza gutxiago dabil errekan. Horregatik joaten naiz urtegitara.

— Badakizu duela urte batzuk Arrasaten bertan arrantza egiten zela?

— Beno, istorio horiek entzun izan ditut, baina niretzat amets bat besterik

ez da. Nik nekez irudizta dezaket horrelakorik, baina inbidia ematen dit.

— Zer da arrantzatik gehien gustatzen zaizuna?

— Lasai egoteko aukera ematen du. Zu bakarrik zaude eta zure gauzetan pentsatzeko astia duzu.

— Arrantza egiteko ametsetako tokirik?

— Beno, Finlandiara joatea ez litzakete txarra izango. Pozik pasatuko



nituzke eguntxo batzuk, han izokinak oso ugariak dira eta. Baina besterik ez dugun bitartean, asteburuan Landara joateko irrikitan nago.

Josu Errasti: “Errekatik urtegitara joan beharra izan dut, erreken egoera gero eta okerragoa delako”.

ARRANTZA BIHAR

Gure herriko errekek ostadarraren kolore guztiekin ikusteko aukera dugu. Aukera tristea bai, baina halaxe da. Ezinezkoa dirudi pentsatzea inork inoiz arrantza egin duela edo egin ahal izango duela hemen, baina 2006. urterako hori da helburua. Gipuzkoako ibaiak berreskuratzea.

Aretxabaletan dagoneko hasi dira erreka garbitzeko lanak. Gipuzkoako Foru Aldundiak 1.000 miloi ptako dirutza inbertitu du.

— Nola garbituko dira errekek?

— Gaur egun erreka isurtzen diren hondakin guztiak hodi batera bideratuko dira. Hodi horietatik hondakinak Bergaran jarriko den ur araztegitara eramango dira.

Han hondakinek tratamendu biologikoak pasako dituzte, guztiz garbi geratu arte. Baina noski, isurkinek aurrez tratamendu bat izango dute, eta horretaz lantegiak arduratu beharko dira.

— Zer lortu nahi da?

— Orain arte erreka zaborrontzi moduan erabili izan dugu, denetarik botatzen zen. Hirigintzan errekek izkutatu nahian ibili gara, desbideratu, estali, edozer gauza egin dugu. Orain prozedura aurkakoa izango da: erreka jendeari hurbildu nahi da, erreka bere osoan berreskuratu.

— 2006. urtean amuarainak hartuko ditugu Deba errekan?

— Beno, ahaleginak



gingo ditugu bizitza egon dadin. Ibaia garbi joango da, eta bizitza izateko aukera egongo da. Ikusi egin behar, baina agian bai.

Koldo Azkoitia, Aretxabaletako Hirigintza zinegotzia: “2006. urterako erreka bere osoan berreskuratu nahi da”.



Berriro ere lanari ekin behar

San Josef zubian atsedena izan dute Zaldibarko jokalariek. Tarte horretan airez aldatu eta ideia garbiekin itzulzeko astia izan dute. Orain, berriro, hirugarren aldia ate joka dabil eta ate hori zabal dadin, azken ahalegina egin beharko dute geratzen diren hiru jardunaldietan.

Laburrak

■ PARTIDA INTERESGARRIAK

Bosgarren jardunaldian partida interesgarriak jokatuko dira larunbatean. Goizeko 11:00etan, Fraguél Gol eta Irati STS izango dira lehian. Ordu bete beranduago, Garaje Oscar eta Los Heredia. Sokoakoak.

Arratsaldean, beste bi neurketa aipagarri: Koka Juniors Betraye batetik, eta Leya Aldibi bestetik.

■ ATZERATUTAKO EKIN ZER?

E taldeko Aldibi, Estrella taberna, Txeyenex eta Toten talde-

ek partida bat gutxiago jokatuko dute. Jardunaldi hori, seguruenera, datorren asteburuan jokatuko da.

■ URIBE AUZOA TXAPELKETA

Urbe Auzoa txapelketan hiru jardunaldi jokatuko dira eta tar-

te horretan nahi baino baloi gehiago galdu direnez, antolatzaileek neurriak hartu dituzte. Hemendik aurrera, Iturripeko kantxa bakoitzean baloi bakarra izango da. Horrek esan nahi du baloi hori galtzen denetan, jokalariek bila joan beharko dutela.



LASAGABASTER

ZURE BETIKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tel.: 79 27 27 / 79 13 55

Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
Sokoakoak	4	4	0	0	22	7	8
Naranja Mekanika	4	4	0	0	26	14	8
Aurrera Bolie	4	2	1	1	20	10	5
Nuevo taberna	4	2	0	2	29	19	4
Zotz	4	1	1	2	16	18	3
Insert Coin	4	1	0	3	16	20	2
Jotakabau	4	0	2	2	7	15	2
Ke Oxtias	4	0	0	4	7	40	0

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
Argi Ibili	4	4	0	0	34	15	8
Ac Surcos	4	3	0	1	26	15	6
Koka Juniors	4	2	1	1	30	10	5
Pepelus	4	2	1	1	22	17	5
Betrayer	4	2	1	1	20	19	5
Jako al Rey	4	1	0	3	9	24	2
Lautherbrunen	4	0	1	3	16	29	1
Tamagotxi	4	0	0	4	10	38	0

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
Garaje Oscar	4	3	1	0	20	13	7
Irati STS	4	2	1	1	29	15	5
Fraguel Gol	4	2	1	1	9	6	5
Los Heredia	4	1	2	1	10	11	4
KKjauri	4	1	2	1	12	24	4
DA Iriztu	4	1	1	2	11	17	3
Jey Holigans	4	1	0	3	11	15	2
AT Celaya	4	1	0	3	17	18	2

E taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
Lorategi	4	4	0	0	30	16	8
Aldibi	3	3	0	0	18	7	6
Branka Taberna	4	3	0	1	24	18	6
Leya	4	2	1	1	27	23	5
Estrella taberna	3	1	0	2	18	20	2
DKB	4	0	1	3	19	36	1
Txeyenex	3	0	0	3	12	21	0
Totem	3	0	0	3	7	14	0

Hurrengo partidak

Martxoak 28, Larunbata

Zaldibar

08:50	Branka Taberna - Lorategi
10:00	Jako al Rey - Lautherbrunen
11:00	Fraguel Gol - Irati STS
12:00	Garaje Oscar - Los Heredia
13:00	Sokoakoak - Nuevo taberna
14:00	Argi Ibili - Tamagotxi
15:00	Zotz - Ke Oxtias
16:00	Koka Juniors - Betrayer
17:00	Aurrera Bolie - Insert Coin
18:00	Pepelus - AC Surcos
19:00	Leya - Aldibi

Martxoak 29, Igendea

Zaldibar

8:50	Naranja Mekanika - Jotakabau
10:00	DA Iriztu - Jey Holigans
11:00	KKjauri - AT Celaya
12:00	Estrella taberna - Txeyenex
13:00	Totem - DKB

Uribe auzoa txapelketa

Hurrengo partidak

Martxoak 28, Larunbata

Iturripe A

10:00	P3000 - Argi Plastic
11:00	Rex 22 - Akta
12:00	Felpudo Maldito - Racing Molotov
13:00	Lantxo taberna - Xhass
14:00	Blind - Borrock Roll
15:00	Medio Grano - Fraguel Gol
16:00	Nuevo taberna - Komando Alpargat
17:00	Spoting - Balon Rojo
18:00	AC Massive - El Milagro de Bautista
19:00	Munar Txiki - Hilarion jatetxea

Iturripe B

13:00	DKB - Zigar Mutilzaharrak
14:00	Kamasutra - La Ostra Azul
15:00	Trotabares - Rotor de Bolbogrado
16:00	Potrosorri - Leya

17:00	Astoen Vila - Decadencia
18:00	Sporting de Tronpetas - Babajana
19:00	Mendizabal P de P - Chuleton Rovers

Martxoak 29, Igendea

Iturripe A

11:00	Piernodoiuna - Dribling
12:00	Bortxitxak - Txotx
13:00	Milan Tokao - Elvis Team

Iturripe B

11:00	Penering Lapsus - Doble Cero
12:00	MR Magoo - Cartonajes Igamo
13:00	Alai Gozokiak - Kalandrax

Bigarren aldiko azken jardunaldiak

Asteburu honetako jardunaldiarekin batera, beste bi falta dira bigarren aldia bukatzeko. Aurrez aurre talde hauek izango dira.

6. Jardunaldia

A taldea

Naranja Mekanika - Zotz
Jotakabau - Ke Oxtias
Sokoakoak - Aurrea Bolie
Insert Coin - Nuevo taberna

B taldea

Argi Ibili - Jako al rey
Tamagotxi - Lautherbrunen
Koka Juniors - Pepelus
AC Surcos - Betrayer

D taldea

Fraguel Gol - KKjauri
Irati STS - AT Celaya
DA Iriztu - Garaje Oscar
Los Heredia - Jey Holigans

E taldea

Estrella - Totem
Txeyenex - DKB
Branka Taberna - Leya
Aldibi - Lorategi

7. Jardunaldia

A taldea

Naranja Mekanika - Sokoakoak
Nuevo taberna - Jotakabau
Zotz - Aurrera Bolie
Insert Coin - Ke Oxtias

B taldea


Argi Ibili - Koka Juniors
Betrayer - Tamagotxi
Jako al Rey - Pepelus
AC Surcos - Lautherbrunen

D taldea

Fraguel Gol - DA Iriztu
Jey Holigans - Irati STS
KKjauri - Garaje Oscar
Los Heredia - AT Celaya

E taldea

Estrella taberna - Branka Taberna
Lorategi - Txeyenex
Totem - Leya
Aldibi - DKB



Fagor Taldeko txirrindularia

ASIER ATXA

Aurten ondo ibili beharra dut afizionatuetara pasatu abal izateko

— Noiztik Dorletako Ama eskolan?

— 15 urterekin hasi nintzen. Aurretik pilotan nenbilen, baina txirrindularitza probatzera animatu eta gustatu egin zitzaidan. Fagor taldean bigarren urtea bete behar dut. Iaz esperientzia hartu nuenez, aurten lasterketak irabaztea da helburua.

— Denboraldia ondo hasi duzu?

— Hiru lasterketa jokatu ditugu eta Azpeitian irabazi egin nuen. Hala ere, entrenatzaileak esaten dit oraindik ez nagoela puntu puntuan eta lan egiten segitu behar dudala. Sasoiari ekainerako izango naiz. Horregatik, une honetan lasterketa motzagoak gustatzen zaizkit. Behin sasoiari jarrita, luzeagoak.

— Zenbat egunetan entrenatzen duzu?

— Bost egunean. Lasterketa baino bi egun lehenago atsedena hartzen dugu eta lasterketaren ostean, ordu beteko bira txiki bat ematen dugu. Orain arte, taldekideekin batera entrenatzen nuen, baina aurten bakarrik nabil.

— Zein izango da hurrengo lasterketa?

— Igandean Antzuolako Uzarragako igoerara joango gara. Iaz nahiko ondo ibili nintzen. Ea bada, aurten hobeto nabilen.

— Txirrindulari bizitza esaten den bezain gogorra da?

— Bai. Helburua lasterketak irabaztea bada, ondo zaindu behar zara eta gogorra da. Tropelean aritzeko, berriz, ez horrenbeste.

— Gustuko txirrindularia?

— Laurent Jalabert gustatzen zait.



SASKIBALOA Derrigorrez garaipena behar



Arrasate Saskibaloi Taldearen jokoa erabat hobetu da bigarren aldian.

Hobekuntza horrek, dena dela, ez du garaipen asko ekarri. Une honetan Roberto Azkaratek zuzentzen duen taldeari bost partida falta zaizkio denboraldia bukatzeko eta bigarren mailari eusteko, denak irabazi behar ditu. Erronka zaila, baina ez lortu ezinezkoa. Larunbatean Arrasate eta Iruñeko Humiclima izango dira nor baino nor, arratsaldeko 18:00etan, Iturripen. Nafarroako taldea sailkapeneko bigarren tokian dago hogeita bat punturekin. Humiclima talde sendo-sendo ez bada ere, utziz gero, min handia egin dezakeen horietarikoa izan daiteke. Arrasatearrek, beraz, helburu bakarra izango dute, garaipena lortzea, alegia.

FUTBOLA Liderrari beldurrik ez



Preferente mailako Mondrak Eibartaldean izango du aurka igandean, arratsaldeko 17:00etan, Ipuruan. Usteak betetzen badira, neurketa interesgarria eta benetan gogorra izango da. Hala ere, Mondrakoek ez diote beldurrik liderrari. Bere ustez, partidu hori gogoz eta ideia garbiekin jokatzeko bada, irabazteko modukoa izan daiteke eta. Hogeita bederatzita jardunaldi jokatu direnean, Arrasateko taldea zazpigarren postuan dago 49 punturekin. Eibarrek 66 puntu ditu.

Mondrako emakumeek

Elgoibar izango dute arerio larunbatean, arratsaldeko 16:30etan, Atxabalpen. Mondrak jipoi handia jaso zuen Lagunak taldearen kontra. Hori dela eta, irabazteko irrikitan zelairatuko dira.

ERRUGBIA Herensugearen txanda

Herensugea beterano taldeak lagun arteko partida jokatu du larunbatean Garagartzan.



Jokalariak arratsaldeko 16:00etan elkartuko dira, baina neurketa 16:30etan hasiko da.

Beterano hauek Euskal ligako kontra jokatu dute. Beraz, etxekoak etxekoek kontrarik izango dira. Bestalde, kadeetek errugbia lantzeko topaketak izango dituzte Hernaniko Landaretokin. Goizean errugbiko teknikak landuko dituzte aditu batzuen laguntzarekin eta arratsaldean partida bat jokatu beharko dute.

ESKUBALOA Gero eta gutxiago

Arrasate Eskubaloi Taldeak eta Usurbilek elkarren kontra jokatu dute igandean, eguerdiko 12:15etan, Iturripen.

Denboraldiko azken aurreko partida izango da Herreroek zuzentzen duen taldearentzat. Bigarren maila galdu dutenez, tramite hutsezko norgehiagokak ari dira jokatzeko. Azken partidari, berriz, Portugalete eta Arrasate izango dira aurrez aurre. Eskubaloikoek arazoak dituzte bajekin eta larunbatean ere entrenatzaileak nahi baino buruhauste gehiago izan dezake jokalarien zerrenda osatzeko orduan.

Bonba taldie: Bidaia Galiziara eta aurkezpen afaria

Apirilaren 8tik 13ra arte, Bonba taldekoek bidaia antolatuta dute Galiziara. Autobusean abiatuko dira eta Cambadoseko Os Pazos hotelan igaroko dituzte lau egunak. Doazenez Galiziako Rias Baixas ezagutzeko aukera izango dute egunero. Bidaiaaren kostoa 22.500 pezeta da, autobusa eta pentzio osoa barne. Izenematea Irati tabernan egin behar da, martxoaren 29a baino lehen. Joateko ez dago zertan taldeko bazkide izan. Apirilaren 12an, Realak Compostelaren kontra neurtuko ditu indarrak San Lazaro futbol zelaian. Hantxe ere ez dira

Bonba taldekoen eta Aranzabal taldearen animoak falta izango. Galiziako bidaia Bonba taldeak antolatzen duen bigarrena izango da, lehen-goan Salamancan izan ziren.

Honekin batera, gogoratu nahi dizuegu Bonba Talde auzetako afaria apirilaren 20an izango dela. Afari horretan parte hartzeko Irati tabernan eman behar duzue izena martxoaren 29a baino lehen. Afarian Aitor Lopez Rekarte izango da protagonista nagusia, baina harekin batera Realeko beste hainbat jokalaririk etorriko dira, hala nola, Idiakez, Aranzabal, De Pedro, Imaz, Aldeondo eta Sarriegi.




Aitor Lopez Rekarte, Realeko jokalaririk arrasatearra.

Karatekak Oñatira eta Azkoitira

Saioa karate eskolako karateka gazteek bi txapelketa izango dituzte asteburu honetan. Zortzi urtetik hamahiru urtera arteko gaztetxoentzako Promozio Txapelketa jokatu da Oñatin. Saioa eskolatik hamasei neska-mutil joango dira, kata espezialitatean parte hartuko dutenak. Gerriko zuritik laranja arteko karatekak izango dira lehian.

Azkoitian, berriz, Azkoitia Hiri Txapelketa jokatu da digandean. Taldekako txapelketa izango da. Arrasateko 16 lagun abiatuko dira ahalik eta txapelketa onena egiteko asmoz. Esandakoaz gain, larunbat honetan Saioa eskolakoek entrenamendu berezia izango dute Donostiako Ondarretako hondartzan Gipuzkoako taldearekin.



Iñaki Muñoz Paris-Bercineko erakusketan izango da.

Maikel Telleo karateka gazteari, bestalde, deitu egin diote Espainiako txapelketa-ko aurreselektzioan parte hartzeko. Froga hori larunbat honetan izango da.

Azkenik, Iñaki Muñoz entrenatzailea arte martzialen erakusketarik sonatuenean izango da Parisen. Paris-Bercin erakusketan hain zuzen ere.

Urtero arte Martzialen barruan dauden estilo bakoitzetik hainbat lagun aukeratzeko dituzte erakusketa egiteko. Iñaki *Kyokushinkai* estiloko erakusketan arituko da Espainiako taldeko beste lau lagunekin batera, apirilaren 18an eta 19an. Arrasateko entrenatzaileak esan digun moduan, Parisen egotea amets bat da, baina gustura biziko duen ametsa.

ADRIAN ZELAIA (MCCKO LEGE AHOLKULARIA)

“MCCren arrakasta er

Adrian Zelaia abokatua da. Duran-
gon bizi baina jaiotzez bilbotarra,
MCCKo lege aholkulari-
tzaren arduraduna eta
Mondragon Unibertsita-
teko lehendakaria dugu.
Bost liburu idatzi ditu,
loaldiari orduak ostuz.
Azkenengo liburuan, orain
kaleratu berria, enpresa
taldeak aztertzen ditu.
Guk Kooperatibak Euskal
Herrian liburuaren ingu-
ruan hitz egin dugu, Arra-
sateko kooperatiba mugimenduari buruz zerbait
gehiago jakin nahian.

— Zer dela eta hasi zinen idazten?

— Tesirako egin nuen ikerkuntzan material piloa aurkitu nuen eta hortik irten zen lehenengo liburua. Ondoren, eguneroko lanean zenbait proiektu aztertu beharra dagoela eta, beste liburuak idatzi nituen.

— Zer jaso daiteke Kooperatibak Euskal Herrian irakurriz?

— Helburua da hausnarketa egitea —eta euskaraz— gure kooperatiben sustraien eta izaeraren inguruan. Egutero entzun eta ikusten ditugun zenbakiak alde batera utzi eta eztabaida sortzen saiatu naiz.

— Kooperatibismoa lana eta elkartasuna hitzetan laburbil daiteke?

— Gure kooperatibismoaren baloreak bai. Kooperatibismoa oso zabala da,

askotarikoa, eta kultura ezberdinetan errotuta dago. Gurean baloreen kontzeptua oso garrantzitsua da. Arizmen-

diarrieta ez zen ideologian edo dogmatismoan oinarritu bakarrik. Balore zehatz batzuetan oinarritutako mugimendua sortu zuen.

— Kooperatibak dikadura garaian sortu ziren. Nola baldintzatu du horrek kooperatibismoa?

— Diktaduraren eraginak markatu egin du, dudarik gabe, gure ibilbidea. Enpresa ikuspegitik egoera ekonomiko berezian sortu zirelako; ikuspegi sozialetik, orduan sindikaturik ez zegoelako; etikotik erlijioaren inguruan hainbat ekimen biltzeko beharra ikusten zelako. Herri euskaldunetan egon arren, euskara eta gai euskaldunak ahaztuta egotea diktaduraren ondorioa ere izan zen.

— Kooperatiben helburua herri eraikuntza da edo enpresa ekimen hutsa?

— Kontuz ibili behar da horrekin. Gure kooperatibak

“MCCK protagonismo handia hartu du, batez ere inguruko industria handiak desagertu egin direlako. European, aldiz, ez gaude hain ondo kokatuta”

erlatibizatu egin behar da'

askotarikoak dira, boterea oso banatuta dago egituretan, eta bakoitzak bere helburuak izan ditzake. Baina orohar, argi dago helburua herri ekimena izan zela. Hori bai, ezin da enpresaren esparrutik banatu. Enpresa izan da herri ekimena aurrera ateratzeko tresna.

— Kooperatiben eta sindikatuen arteko harremana nolakoa da gaur egun?

— Kooperatibismoaren sorreratik hurbiltze ideologikoa egon dela uste dut, beti ere, langileen egoera soziala hobetzeko. Hala ere, epe motzera begiratuta, kooperatibak erronka eta arrisku dira sindikatuentzat. Momentuz kooperatibetan ez dago hauteskunde sindikalik, beraz sindikatuen merkatua murriztu egiten da kooperatibak zabalitzen diren neurrian. Ikuspegi hori duen sindikaturik bada, baina epe luzera begiratzen

duenak kooperatibak langile-riari ematen dizkion abantailak ikusten ditu.

— Kooperatibismoaren elkartasuna ez zaie kontrajartzen gaur egungo behin behineko kontratuei?

— Hori kontraesan bat da, baina kontraesanak egunero ko gauza dira edozein enpresa edo giza mugimendutan. Kontraesanak bideratu egin behar dira eta testuinguru orokor batean jarri. Orain hasi dira kooperatiban behin

behineko eta soldatapeko kontratuak murrizteko ahaleginetan.

— Zein garrantzi du hezkuntzak gaurko kooperatibari?

— Denok dakigu Eskola Politeknikoa egon zela lehen kooperatiben jatorrian. Hezkuntzaren eragina beraz, funtsezkoa izan da.

Denborarekin, arlo enpresariala hezkuntza baino gehiago garatu da. Orain, Mondragon Unibertsitateak berres-

kuratu egin behar du oreka hori.

— Nola lortu du MCCk gaur egun duen arrakasta eta nora doa?

— Enpresaren arrakasta erlatibizatu egin behar da. Azken urteotan gauzak ondo joan dira, baina ez seguru asko egunkarietan eta aldizkarietan agertzen den bezainbeste. Gertatzen dena da, inguruko industria handiak desagertu egin direla eta protagonismo handia lortu dugula, batez ere besteek porrot egin dutelako. Europako merkatuan, aldiz, ez gaude ondo kokatuta. Nazioartera atera behar dugu. Hori da gure erronkarik garrantzitsuena. Kontua da hori ondo bideratzea enpresa garen aldeetik eta aldi berean gure oinarrirei, kultura eta giza oinarrirei eustea. Horrek irudimena lantzea eskatzen du, dogmatismoetan jausi barik. ■

“Kooperatibak Euskal Herrian liburuan kooperatiben izaeraren inguruko hausnarketak egin dit. Zenbakiak alde batera utzi eta eztabaida sortzen saiatu naiz”



URONDO Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 79 78 15 / 77 10 42 Faxe: 77 14 76

■ Fernando Sanchez

ARRASATE MOTORZALE ELKARTEKO KIDEA



Fernando Sanchez "Guindilla" gaitzizenaz ezagutzen du jendeak, oso bizia omen da eta. Motorrak dira bere grina eta euskara irakaslea bere ametsgaiztoa. Horren gauza gozoak esan eta gero, seguru bere neskak musu gozo bat ematen diola elkarrizketa hau irakurri ondoren.

- 1.- Zein da zure horoskopoa? Eskorpio
- 2.- Sinestuna zara? Bai, baina gutxi.
- 3.- Animalia bihurtzekotan? Arranoa.
- 4.- Zure akats bat/gauza on bat? Pipermin hutsa naiz.
- 5.- Zerk lotsarazten zaitu? Ikasketak bukatu ez izanak.
- 6.- Amets bat? Euskal Herrian lasterketak egiteko zirkuitu bat egotea.
- 7.- Zer kenduko zenuke mundutik? Politikoak.
- 8.- Gertakizun historiko bat? Gernikako bonbardaketa.
- 9.- Nor miresten duzu? Nire neskalaguna.
- 10.- Zeri diozu beldurra? Nire euskara irakasleari, Oscarri.
- 11.- Zeozer garbatzen zaizu? Ezer ere ez. Egindakoa egina dago.
- 12.- Negar egin duzun azken aldia? Motor istripua izan nuenean.
- 13.- Zer falta zaio Arrasateri? Motokros zirkuitua eta laguntza gehiago.
- 14.- Eta zuri? Dirua eta bolada on bat bizitzea.
- 15.- Lanbidez aldatzekotan? Mantiemendu mekanikoa.
- 16.- Arrasateko gustuko toki bat? Musakola.
- 17.- Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun gauza hori? Etxeko berrikuntza egitea.
- 18.- Zein egunkari irakurtzen duzu? Motoziklismoaren ingurukoak.
- 19.- Gustuko janari bat? Babarrunak, sakramentu guztiek.
- 20.- Liburu on bat? *Viven*.
- 21.- Filmik onena/txarrena? *Titanic* / *Condemor de la Pradera*.
- 22.- Musika talderik onena/txarrena? *D.D.D.P./Mike Olfield*.
- 23.- Telebistako programarik onena/txarrena? *Qué pasa pues/Carrascal*.
- 24.- Egin dizuten oparirik politena? Merte ezagutu izana.
- 25.- Denbora libreaz zertan pasatzen duzu? Motorrean ibiltzen.
- 26.- Oporretarako toki bat? Australia edo Kanada.
- 27.- Etxeko lanik gorrotagarriena? Ohea eta garbiketak egitea.
- 28.- Gomendio bat? Erretzeari uztea.
- 29.- Zeren alde emango zenuke bizia? Familiaren alde.
- 30.- 200 milioi irabaziz gero? *Moto Club* taldeari lokal bat erosiko nioke. Beste guztia Haziendak kenduko lidake.



OPEL

TAKOLO AUTOAK

Araba etorbidea, 3
(ESKATU pabilioia)
ARRASATE
Tel.: 79 05 86

Hariztiak,

kontuan edukitzeko altxorrak

Antzina Deba Garaiko lurralde gehiena hariztiz josita zegoen. Horregatik hemengo toponimo asko (Aretxabaleta, Harizeta...) hariztetzan zeuden oinarrituta. Gaur egun, berriz, gaitza egiten zaigu lehengo harizti haiek aurkitzea.

Arrasate inguruan aipatzekoak dira hurrengo harizti hauek:

- Deba ibaiaren jaiotza eta Dorletako Amabirjinaren artekoa: Hemen garaiera handiko haritzak ikus daitezke. Mendingo gora joan ahala, pago gehiago antzeman daitezke, haritza 800 metrotik behera geratzen da eta.

- Bitxikeria moduan zera esango dugu, Landa herritik gertu, "Aitona" moduan ezagutzen den haritz bat dagoela, gerriaren bueltan 6,3 metro duena. Zalduondotik gertu, berriz, Euskadiko haritzik lodiena dago: 7,3 m-ko perimetrokoa.

- Muru hego magalaren erkamezia: Erkamezti honen tamaina handia ez izan arren, bere berezitasuna *Quercus faginea* espeziekoa izatea da. Izan ere, oso urria da espeziea Gipuzkoan, berez klima mediterraneokoa baita. Prohibitzen dagoen erkamezti bakarretarikoa izanda, babes-etu egin beharko litzateke.

- Mazmelako ameztoia (*Q. pyrenaica*): Ameztoi hau Gipuzkoako handiena da eta aurrekoak bezala, enklabe sikuagoa adierazten du. Aipa-



Goiko argazkia Normandian (Frantzia) aterata dago. Haritz hori lasai asko 7 miloitan balora daitezke.

tzekoak dira hemen hazten diren ondoak.

- Udala auzokoa: Udalatik Kanpanzarrerako bidean dago, eta nahiz eta hedadura txikikoa izan, Udalatxeko artadi ederrean egoteak edertasuna ematen dio.

Hemengo haritz espezieak bereizteko, ondorengo klabe hauek baliagarriak izan litezke:

- *Quercus robur*. Hostoak aurikulatuak ditu (hostoaren behealdean bi belarritxoaren moduko irtenguneak) eta txorten txikikoak.

- *Q. petraea*.. Hostoak txorten luzekoak (zm. batekoak edo).

- *Q. pyrenaica*. Hostoak oso lobulatuak, azpialdean tomentodunak eta martzes-

zenteak (neguan ere hosto sikuak itsatsita jarraitzen dutenak).

- *Q. faginea*. Hostoak txikiak eta hortzdunak, martzeszenteak.

Felix Barcina, ikaslea
Juan Andres Oria de Rueda, mendi ingeniaria eta irakaslea

Arrasateko Euskalki Ikastaroa

“Hemengo euskararen izenean astakeria handiak esan dira”

“Pasau leikedoztazu hori?”. Horrelako esaldiak egunero-ko ogia bezain arruntak bihurtu dira gure herrian ume, gazte eta ez hain gazteen artean.

Gutxi dira benetan zuzen hitz egiten dutenak gure aita-jaun-amandreen euskara.

Azken urteotan, batzuetan erdararen eraginagatik, bestetan analojismoz, akats handiak egin ditugu gure euskararen. Aditzak asmatu dira: *leikedoztazu* (zeike), *zuztazun* (euztezun), *ein leikejako* (ein leikixo).

Bestetan gaizki erabiltzen ditugu lexikoa edo estruktura: *zeren buruz berba eñ dozu?* (Zeri buruz/Zeren gainean), *denbora txarra* (eguraldi txarra), *etorriko bazitzake* (etorriko bazitxe) ...

Udal Euskaltegian buruhauste ugari izan dituzte honi buruz. Hausnarketa egin ondoren, Arrasateko euskalkiaren inguruko ikastaroa eman dute.



Ikastaroa Udal Euskaltegian egingo da.

Jesus Mari Garaik, ikastaroko maisuak, arrazoi argi bat eman zigun ikastaroaren zergatia ulertzeko: “Arrasateko euskararen izenean astakeria handiak entzun dira azken urteotan. Hau onartezina da, eta zerbait egin beharra dugu”. Ikastetxeetako irakasleei zuzendu zaie ikastaroa, helburu batekin: beraiek dira haurrekin dabilzanak, eta noski, hauengan dago eus-

kararen etorkizuna.

Miren Arregi eta Jesus Mari Garai izan dira 20 orduko ikastaroaren irakasleak. Helburu bikoitza izan du ikastaroak, Miren Arregik dioen moduan: “Positiboa izan da, batez ere gogoeta egiteko balio duelako. Hausnartzeko balio izan du. Orain arte euskalkiari ez diogu behar zuen garrantzia eman, ahaztu egin dugu. Hori da gure helburu nagusia:

gogoeta eragitea. Bestalde, entzuten genituen hankasartze asko zuzenduz gero, zerbait lortuko dugula uste dugu, eta hor jarri ditugu gure ahaleginak. Belarrira min egiten duten gauza horiek behintzat ekidin nahi ditugu”.

Mirenek eta Jesus Mari Gerardo Elorzak bailarako euskararen inguruan egindako lana, eta etxeko sukaldetan gordetzen den jakituria batik-bat izan dute oinarrian.

Ikastaroa herriko hainbat esparrutara zabaltzeko asmoa dute: komunikabideak, jende gaztea... Nork ez du hankasartzeren bat egiten? Eta denok dugu euskara ongi hitz egiteko erantzukizuna.

Baina ez dezagun ahaztu: “hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek hitz egiten ez dutelako, dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik”.

Beraz, ahalegin gaitezen ongi hitz egiten, baina beti ere hitz egiten, besterik ez bada.

LAN ESKAINTZA

Arrasateko Udalak
“Kultura Laguntzaileen
Lan-Poltsa” osatu nahi du.

Oinarriak: Udaletxean jaso daitezke.
Izena emateko epea: apirilaren 6an amaituko da.
Probak: apirilaren 7an egingo dira.



ARRASATEKO UDALA

Pertsonal Saila ■

Pavimentos AGR
ARROZTEGIA

Mota guztietako zoruak • Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak • Leihoak • Ateak
Eskailerak • Armairu enpotratuak eta abar
MATERIALEN SALMENTA

Erakusketa eta biltegia:
Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE
Tel.: 77 11 20 • Faxa: 77 11 20

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuademazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreproduzioa
Offseta

Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 79 46 62

ITSASKI
ARRAINDEGIA

Arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
ARRASATE
Tel.: 79 98 94

EDURNE OLAZABAL, BIOLAJOLEA

“Biola ongi jotea norberaren esku dago”

Gurasoek eta anai-arrebek animatu zuten Edurne musikan hasteko 10 urte zituela. Gaur egun goi mailako biola ikasketak amaitzen ari da Donostian. Hainbat orkestratan paseatu du bere biola.

Egunean bost edo sei ordu entseiatu behar izaten du. Ez du astebururik ezagutzen, egunik gogorrenak dira beretzat. Hala ere, merezi du.

— Zein orkestratan jotzen duzu biola?


—Lau tokitan nabil: Arrasate Musikalen parte hartzen dut duela urte dextente; Euskal Herriko Gazte Orkestran ere aritzen naiz eta baita Aita Donosti sokas eskolan ere. Azkenengo esperientzia Et Inkarnatus ganbera orkestra izan da. Gipuzkoako musika ikasle gazteek sortu dugu. Gauza berriak egin nahi ditugu. Orkestrek antzeko gauzak egiten dituzte beti, guk molde berriak ezarri nahi ditugu musikan: jazz musika eta klasikoa batu nahi ditugu. Esperientzia berriazango da.

—Egunak horrenbesterako ematen du?

—Beno, batzuetan erotu beharrean egoten naiz, baina azkenean denetarako izaten da astia. Erronka bilakatzen da biola ongi jotea. Nork bere buruarekin egiten duen apostua da: klase bakoitzean hobeto jo behar duzu, zeure burua gainditu beharra duzu. Niri gustatu egiten zait, niretzat ez da sakrifizioa.

— Zaila izan zen musika ogibide moduan aukeratzea?

—Niretzat ez, nik oso garbi izan nuen musika ikasketak egin nahi nituela. Baina irakasle askok ez zuten ulertzen unibertsitatera joan ordez, nahiago nuela



biola ikasi. UBI amaitu nuenean Baionako Kontserbatoriora joan nintzen, eta inoiz ez naiz damutu hartutako erabakiaz. Zailena iristear dago. Musikan nabarmentzea neketsua da, oso ona izan behar duzu orkestra handi batean sartzeko. Beraz, orain hasten da benetako apustua.

—Ze maila dago Euskal Herrian musikari dagokionez?

—Beno, gero eta hobeto gabiltza, baina oraindik bide luzea geratzen zaigu, Europako beste herri batzuekin alderatuz gero. Guri diziplina falta zaigu. Europako Ekialdean lan ohitura gogorak dituzte eta hori nabaritu egiten da.

—Non gustatuko litzazuke kontzertu bat ematea?

—Aukeratzekotan, Madrilgo Auditorio Nazionalean aukeratuko nuke. Oso akustika ona du. Han jotea oso interesgarria izango litzateke. Bach-en pieza bat hautatuko nuke antzetzeko.

aste gazte

■ BEKAK

• EHU-UPVren Udako Unibertsitaterako eta Europar ikastaroetarako bekak eskatzeko epea: apirilak 8.

■ GAZTEAK LANKIDETZAN PROGRAMA

• Euskadiko herri erakundeek eta gobernuz kanpoko elkarteek Hirugarren Munduko herrietan antoaltzen dituzten lankidetzak Jardueretan parte hartzeko aukera duzu. Epea: apirilak 17.

■ LANA

• Jakinarazle bat behar du Arrasateko Udalak. Epea: martxoak 31.

• Noaingo (Nafarroa) Musika Eskolarako, musika hizkuntzako irakasle bat behar da. Epea: apirilak 5.

• Bergarako Udalak, euskara teknikari bat behar du. Epea: apirilak 7.

• Nafarroako Arangurengo haranerako, administratiboa behar da. Epea: apirilak 12.

■ UDALEKUAK

• 7-13 urte bitarteko haurrentzat Diputazioak antolatzen dituen udalekuetan parte hartzeko izen emate epea: martxoaren 31tik apirilaren 21era.

• Euskal Udalekuetan izena emateko fitxak jaso ditugu. Elkarrekin Abaigar, Bernedo, Goñi edo Urdirotzera joan nahi izanez gero, martxoaren 31 baino lehen eman behar da izena.

■ GAZTE IKASTAROAK

• Hastapen mailako argazkigintza ikastaroa (teoria eta praktika). Apirilak 25ean hasi eta ekainak 6 arte.

Informazio gehiagorako:

GAZTE ZERBITZUA

☎ 77 00 65

“Beste herrialde batzuekin alderatuz gero, hemen diziplina falta zaigu”

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Astigarragan etxebizitza berriztua salgai. Tel.: 33 12 20. Gema.

• Etxea salgai Nafarroako Allo herrian. Lizarratik 11 kilometroa. Berogailua dauka eta berriztuta dago. Tel.: 948-27 09 44. Arrasalde edo gauzei deitu.

• Etxebizitza salgai, soto eta guzti. Tel.: 79 22 57. Denda orduetan, berriz, 79 15 96.

• Musakolako Maixu Aranbarrin 80 metro koadroko etxebizitza salgai. Sukaldea 3 logela, egongela eta bainugela. Gas naturala. Guztiz eguzkitsua. Tel.: 79 15 20

2. Erosi

• Konpontzeko dagoen etxebizitza erosiko nuke, 60 m² ingurukoa. Tel.: 77 10 44 eta 908 77 33 27.

• Arrasateko erdialdean igogailua duen etxebizitza erosiko nuke. Tel.: 77 02 79.

3. Errentan emateko

• Aramaion plaza ondoan dagoen etxebizitza alokatzen da. Tel.: 79 60 88.

• Etxebizitza alokatzen da San Joan auzoan. 1. Pisua. 3 logela eta egongela. berogailua ere badauka. Tel.: 79 77 13.

4. Errentan hartzeko

• Etxebizitza txikia, atiko edo teilatutua alokatuko genuke, merke. Tel.: 70 09 52. Gauzei.

• Hiru lagunentzako etxebizitza behar da Arrasaten. Tel.: 77 12 00. Xabier Sagartzazu.

5. Etxe konpartituak

• Lagun bat behar da Eskola ondoan etxebizitza osatzeko. Tel.: 77 08 44.

Gela merke baten bila nabil. Tel.: 908-57 64 86. Josean.

GARAJEAK

7. Saldu

• Etxebizitza batean logela bat alokatuko nuke. Tel.: 948 25 47 16. Deitu gaueko 22:30ak baino lehen.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdtu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Harremanak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



77 05 65

Arrasate Press • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)
E-mail: arrasatepress@readysoft.es

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Press ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

• Erguinen bi solairuko garajea salgai. Tel.: 79 48 91 eta 79 96 39.

• Kontzeziñon lehenengo solairuan garajea salgai. Tel.: 79 18 76.

• Bañez Dokorea kalean garajea salgai. Prezio ona. Tel.: 79 93 91. Jose Mari.

• Garajea salgai Roneoko etxeetan. 1. solairuan, garaje itxia. Tel.: 79 18 70

9. Errentan emateko

• Erguin auzoan garajea alokagai. Tel.: 79 13 97. Gauzei.

• Uribe auzoan garajea salgai. Tel.: 79 27 45.

• Roneoko etxeetan garaje itxia alokatzen da. Tel.: 79 19 64.

10. Errentan hartzeko

• Garajea alokatuko genuke. Lur azpikoa ez balitz hobe. Tel.: 79 54 23. Jaione.

LOKALAK

12. Saldu

• Kalealdean baina Zarugaldetik gertu 100 m²ko bi solairuko lokala salgai. Tel.: 79 07 24.

14. Errentan emateko

• San Andresen frutadenda eskualdatzen da. Tel.: 79 72 91. Gaueko 21:30etatik aurrera. Matilde.

• Bergarako Bolu kalean lau gelako bulegoa alokagai (Osorik edo gela). Tel.: 76 58 91.

• Izarra dorrean 110 m²ko tokia alokagai. Tel.: 79 25 26.

• San Joan hotel berritutik gertu eta leku onean 62 m²ko tokia alokagai. Edozein kontsultarako proposa. Tel.: 79 18 95.

• Ilepaindegia batek tokia alokatzen du Esteticien batentzat. Ilepaindegia Makatzenan dago, 10. zenbakian. Ibaie ilepaindegia da. Tel.: 76 69 15.

15. Errentan hartzeko

• Gazte batzuk toki baten bila dabilza. Tel.: 79 56 14. Igor.

• Gazte talde batek toki bat errentan hartuko luke. Tel.: 79 53 18. Asier.

LANA

17. Eskaintzak

• Asteburuetan eta jai egunetan emakume euskalduna pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tel.: 76 37 80. Egurdieta.

• Neska gertu umeak zaindu edo kamarrero lanak egiteko. Tel.: 79 57 64.

• Emakume euskalduna gertu etxeko lanak egin eta umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko. Tel.: 79 07 73.

• Esperientziadun neska euskalduna denda batean lan egiteko gertu. Tel.: 79 81 16. Estibaliz.

• Neska arduratsua gertu dago orduka garbiketarako edo umeak zaintzeko. Tel.: 71 53 74. Deitu goizez edo 20:00etatik aurrera.

• Esperientziadun neska eskaintzen da zerbitzari lanetan aritzeko. Tel.: 79 36 49.

18. Eskaerak

• Zerbitzari gaztea behar da. Tel.: 79 67 12. Goizez.

• Garriolari laguntzaile lanetarako mutil arrasatearra behar da. Tel.: 907 70 20 46.

• Zerbitzari euskalduna eta esperientziaduna behar da. Tel.: 79 24 58.

• Asteburuetarako zerbitzaria behar da jangelan zerbitzuko. Tel.: 79 68 57.

• Emakumea behar da taberna bateko sukaldean lan egiteko. Tel.: 79 00 34.

• Esukaldunon Egunakaria Arrasaten banatzeko pertsona bat behar da. Euskaraz jakitea eta autoa edukitzea beharrezkoa da. Tel.: 79 75 58. Juli. Arrasalde.

• Zarugalde 50ean 20-45 urte arteko emakumea behar da denda lan egiteko. Interesatuak iluntzeko 19:00 etatik 20:00etara pasa bertatik. Tel.: 77 13 91

• Ilepaindegia batean lanaribatetan lan egiteko neska bat behar da. Tel.: 79 04 28.

• Lagun euskalduna behar dugu umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 79 56 30. Gaez deitu.

19. Denetarik

• Lanak ordenadorez pasatzen dira. Tel.: 79 79 84.

• Suitzara *au pair* bezala joateko neska bat behar da. Frantsez apur bat jakitea beharrezkoa da. Tel.: 79 40 91.

• Eskuak jarrita osatzeko modu naturala (Reiki). Tel.: 79 45 74.

• Enkarguzko margolanak (kuadroak) egiten ditut. Informazio gehiago 77 01 07 telefonora deituta. Ana.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• Psikologoa, lehen hezkuntzako era guztietako laguntza eskola emateko gertu. Tel.: 77 17 02.

• Lizentziatu eta Pariseko Sorbonan ikasia, frantsesezko eskolak emateko prest. Edozein ordutan, komeni zaizun lekuan. Tel.: 79 06 15. Iban.

21. Eskaerak

• Frantses eskolak hartuko nituzke. Tel.: 78 08 24. Deitu 20:00etatik aurrera. Maite.

• 2. LOGSEko ikasle bati matematika eskolak emateko irakaslea behar dugu. Tel.: 79 44 11. Anastosio edo Pura.

MOTORRA

23. Saldu

• Super 5 Turbo salgai. Egoera ona. Tel.: 76 56 55 edo 79 75 11. Juan Luis.

• Golf autoa salgai. Lehen modeloa ITV otsailean pasa zuen. Motorra rektifikatua. Prezioa: 175.000 pta. Tel.: 79 27 24.

• Seat Ibiza autoa salgai prezio interesgarrian. Tel.: 79 59 62.

• Kawasaki Vulkan 500 cc. motorra salgai. Egoera onean, merkea eta segururekin. Deitu eguerdian (1:00etik 2:00etara) eta gauean (9:00etatik 10:etara) Tel.: 79 66 27

DENETARIK

26. Saldu

• 10 x 3,5 Movil home-a salgai. 3 gela, bainugela, sukaldea eta jangela. Oso egoera onean. Tel.: 79 89 86. Gaez.

• Trial Sin-erako bizikleta gorria salgai. Egoera onean eta merkea. Tel.: 79 96 31.

• Sehaska salgai. Zuriz lakatua, egoera onean. Deitu gaez. Merkea. Tel.: 79 86 86.

• Antzinako barko ohea salgai, koltxoia eta guzti (1,20 m zabalera eta 2 m luzera). Tel.: 79 63 16. (Luis).

• Antzinako gaumahaia salgai. Tel.: 79 63 16. (Luis).

• Trabesiako eski ekipoa salgai: Eskiak-Kastle, 1,70 m; fijazloak Silverta; botak Koflach 40/41; aihotzak; larruak; Bentiskako betaurrekoak. Tel.: 79 63 16. (Luis).

• Gitarra baten amplifikadorea salgai. Yamaha modeloa. 25 watio. Tel.: 79 72 76. (Angel.)

• Mountain Bike bizikleta salgai.

10.000 pta. Tel.: 79 60 81.

• Audi 80 autoa salgai. 1.8E. Tel.: 79 82 06.

• R5 SS-U matrikulako autoa salgai. ITV99ko otsailera arte. 150.000 pta. Tel.: 79 27 13.

29. Eman

• Bost hileko txakur mestizoa operituko nuke, ondo zaintzekotan. Tel.: 79 90 46.

31. Galdu


• Joan zen astean forro polarra galdu nuen. Beltza eta orlegia da. Aurkituz gero, dei egin 79 07 94 telefonoa.

32. Aurkitu

• Opari bat aurkitu nuen otsailaren 19an Garibai etorbideko telefono kabinan. Tel.: 77 11 68. Jon.

35. Harremanak

• Euskadi Gazteko makrojairako gonbita baduzu elkarrekin joan gaitzetzke. Tel.: 79 79 83. Susana.



WERU®
Ate + leihoak



ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tel.: 79 24 12 eta 79 97 95
ARRASATE



Salterain

PVC-zko ate eta
leihoez gain:
moksetak,
zoru arinak,
kortxoak,
Louverdrape
kortinak,
Kortinoba, testila...

■ Horoskopoa

- **Aries** Zu beti horoskopoiari begira...
- **Taurus** Lagunei ez badiezu deitzen, zutaz ahaztuko dira.
- **Gemini** Etekin ikaragarriak aterako dituzu zure lanean.
- **Cancer** Beti zoaz atzerantz, karra-marroak bezala...
- **Leo** Txoriak besterik ez dituzu buruan.
- **Virgo** Kupidok bihotzaren barren barrenean sartuko dizu gezia.
- **Libra** Izkutuko interesak dituen batek menderatuko du zure bizitza.
- **Scorpio** Sorginkeriak egiteko, sorgin agiria atera beharko duzu.
- **Sagitaris** Ez zaitetz ispiluauren aurrean denbora luzez gera, badaezpada.
- **Capricorn** Adarra jotzen inguru haue-tako onena zara.
- **Aquarius** Errealitateak ametsek baino poztasun handiagoa emango dizu.
- **Piscis** San Frantziskora zoazenean betaurreko gorriak eraman.

■ Gurutzegramak

1	2	3	4	5	6	7
8		9				
10		11				
12		13				14
15		16				
17			18	19		
20					21	

JUAN BAUTISTA AGORRIA

Horizontalak 1. Gizakume. 8. Kanpo. 9. Masoneriako kide den pertsona. 10. Lanerako erabiltzen den edozein tresna. 12. (Ald.) Mea eraldatu eta burdina lortzeko tokia. 13. (Ald.) Geldi, lasai; batez ere itsasoaz esaten da. 15. (Ald.) Alkoholetan disolbatutako substantzia bat edo gehiagoz eginiko medikamentu kimikoa. 17. Zerbait zorrean saltzen zenean, saldutakoa zer eta zenbat zen gogoratzeko, toki batzuetan erabiltzen zen marka berezidun makila. 18. Hitz ematea edo baiezipena. 20. Gorputza babesteko defentsaren multzoa. 21. Kasik.

Bertikalak 1. Julio margolariaren abizena. 2. Italian jaiotua. 3. Serme-alabak dituen emakumezkoa. 4. Hesteak, urdaila eta beste errai batzuk dauden gorputzaren barrunbea. 5. Erabateko materia gabezia. 6. Frantzia, Belgika eta Herbehereetako ibaiak. 7. Omen. 11. (Ald.) Richard, EEBB-eko Presidente ohia. 14. Bakoitzak bi. 16. Bidarteko bokalak. 19. Bi, erromatar erara.

Bertikalak: 1. Galartar. 2. Italiar. 3. Ama. 4. Sabel. 5. Ezerez. 6. Mosa. 7. El. 11. (Ald.) Nixon. 14. Xir. 17. Tala. 18. Zim. 20. Arnes. 21. Ia.

Horizontalak: 1. Gizaseme. 8. Ar. 9. Mazoi. 10. Lanabes. 12. (Ald.) Oia. 13. (Ald.) Bare. 15. (Ald.) Eji. Bina. 16. Iac. 19. II.

Publizitate erreportajea

PUBLIZITATEA EGITEKO MODUAK ETA MODUAK

Bada enpresa bat, Durangon kokatua, beste guztiengandik gailentzen dena, bere publizitatea kulturaren, euskararen, kirolaren eta abarreko kontaezin ahala ekintzatan agertzen delako. BAQUE etxeaz ari gara. Emilio Baqué Delás jaunarekin gaude (Cafés Baque enpresako Zuzendaria)

Galdera: Emilio, euskararen aldeko topaketa eta bilgunea handi guztietan ikusten zaituztet -Kilometroak, Ibilaldia, Herri Urrats...-. Zergatik hori? Euskara maite duzelako ala errentagarritasunagatik?

Emilio: Egia esateko, hasiera batean laguntza bat ematea beste asmorik ez genuen, euskarari diru laguntza ematea. Baina, honelako hainbeste eta hainbeste ekintzatan egon ondoren, azkenerako, sinpatiatatik edo esker onez, errentagarri ere badela uste dugu.

G. Zentzu honetan ze nolako beste ardurak dituzue?

E. Euskarazko argitalpenen literatura sarietan eskuhartu izan dugu, IRUÑA Saria. Urtero Durangoaldeko Antzerki saria eman ohi dugu, abesbatzen hainbat disko lagundu eta argitaratu ditugu eta Euskal Herriko Historiari buruzko liburuak ere argitaratu izan ditugu.

G. Bai telebistan eta bai kalean, BAQUE kamiseta eta txandal ugari ikusi ohi dugu...

E. Hala da, Saskibaloian, Txirrindularitzan eta Pilotan batez ere. Orain dela 25, 20 eta 12 urte hasi ginen, batean eta bestean. Atletismoan, Arraunean eta beste kirol batzuetan ere aritzen gara geure ahalegintxoak jartzen; baina, hori bai, beti zaletasunezko eta oinarriko kirola da guk bultzatzen duguna.



Emilio Baqué,
Cafés BAQUEko
Zuzendari Gerentea.

G. Saltzeko garaian Euskara asko erabiltzen duzue. Errentagarria al da?

E. Beti ez ditugu gauzak errentagarritasun hutsagatik egiten. Motibazio ugari dira gehien bat euskal giroan ibiltzera eta mezua euskaraz ematera bultzatzen gaituz-tenak. Azkenerako denak du bere ordaina, nahiz eta iristen zertxobait denbora gehiago behar izan.

Cafés Baqué gaur gure aldezkarian azaltzea, beste enpresa batzuentzat pizgarri izatea nahi genuke.

Zabal bedi erredua.

LARRAITZ ODRIOZOLA

Gazteek hartuko dituzte mikrofonoak. Arrasate Irratian

Saio berriak Arrasate Irratian

Arrasate Irratian buru-belarri ari dira lanean gutxi barru sorpresaren bat edo beste emateko asmoz.

Oraindik egun zehatzik ez dago, baina Aste Santutako oporrek utziko dute oparirik 107.7 FM uhinetan, Arrasate Irratian.

Gazteek hartuko dute mikrofonoa, eta bost irratsaio berri estreinatuko dira.

Irratsaio bakoitzak bere nortasuna izango du, egiten duten gazteei dagokien moduan.

Soloik Solo saioan munduko kulturak ezagutuko dira.

Hitza eta Ekintza saioak pil-pilean dauden gaiak eskainiko ditu, gazteen kezka, eztabaidak eta hainbat sorpresa.

Umoreak eta saltsak ere



Emisio ordu gehiago izango ditu laster Arrasate Irratia.

izango dute txokoa saioen batean. Eta gazteak izanik, ezin falta musika: *Txerrendantza* saioan arduratuko dira honetaz.

Orain arteko saioek ere bere horretan segituko dute.

Beraz, Arrasate Irratiaren emisio orduak gehitu egingo dira.

Adi egon beharko dugu Arrasate Irratiko mikrofonoek ekarriko dizkiguten berrikuntzak ez galtzeko.

Arrasate Irratia 107.7 FM

LARUNBATA

9:00 **Albistegia**

9:30 **Musika**

10:00-11:00 **Jailarai** haurrentzako programa. Maider Errarte eta Belen Aranbarrerekin.

11:00-12:00 **Zoroklasikoak**. Musika klasikoa, Eugenio Etxebeste, Iñaki Olaiola eta Eusebio Iñarrarekin.

12:00-14:00 **Bi Zoro eta Zu** magazina, Mikel Lizarralde eta Edu Abasolarekin.

ASTELEHENA-OSTIRALA GOIZ-EGUERDIZ

9:00 **Albistegia**

9:30-11:00 **Goizoro**

14:30-16:00 **Bixau orduan**

GAUEZ

Astelehena

21:00-22:00 **Jokoz kanpo**. Kirolak, Gorka Etxabe eta Rafa Mungiarekin.

Asteartea

22:00-23:00 **Euskal Festa**. Goizane Arana, Maider Errarte eta Garbiñe Perezekin.

Asteazkena

22:00-23:00 **KK2A**. Biteri Ikastetxe Nagusiko ikasleek eginiko magazina.

Osteguna

22:00-23:00 **Kutrelax**. Belen Carenas eta Kaïttin Allenderekkin.

Ostirala

22:00-23:00 **Music Box**. Edu Abasolo eta Pedro Costarekin.

23:00-24:00 **Draxtor**. Makina musika, Daisy D. eta Betty Boorekin.

■ ATBko programazioa

LARUNBATA, 28	ASTELEHENA, 29	ASTEARTEA, 30	ASTEAZKENA, 31	OSTEGUNA, 1	OSTIRALA, 2
Astean zehar eskainitako saioarik interesgarrien errepika.	13:30 Astebete . (Errepika.)	13:30 Mondrasport . (Errepika.)	13:30 Lotsa barik . (Errepika.)	13:30 Munduari buel-taka . (Errepika.)	13:30 Kukaratxa Motel (Errepika.)
13:30 Kukaratxa Motel	20:00/20:30/21:00 Berriak .	20:00/20:30/21:00 Berriak .	20:00/20:30/21:00 Berriak .	19:15 Kukaratxa Motel . <i>Betirtze Iñurritegi eta Alazne Ruiz de Munain</i> . Gaztetxoentzako lehiaketa umoretsua.	20:00/20:30/21:00 Berriak .
14:15 Astebete	21:30 Mondrasport . <i>Itxaro Zubillaga</i> . Asteburuko kirol jardueraren errepaso zabala, Zaldibarko futbito txapelketa, gonbidatuak..., eta lehiaketa astelehenero.	21:30 Lotsa Barik . Gonbidatua: Iban González, <i>Ekon</i> taldeko abeslaria.	21:30 Munduari Buel-taka . <i>Elene Alberdi</i> . Gonbidatua: Koke Lasas.	20:00/20:30/21:00 Berriak .	21:30 Astebete . <i>Paxi Montero</i> . Astean zehar jasotako berrien gainbegiratzea.
14:45 Lotsa Barik . Gonbidatua: Saul Osinaga, <i>Iskanbila</i> taldeko abeslaria.				21:30 Kukaratxa Motel .	

Gaurko argazia kotoizko zapi artean ondo

gordeta eduki behar den horietakoa da. Alde batetik balore sentimentalagatik; bestetik, izan dezakeen balore historikoagatik.

Erretratuko neskatxa panpoxa Juanita Arana *Peke* da, bere Lehen Jaunartze egunean. Jaunitak ez du oroitzen zer urtetan atera zioten argazia, baina bai kanpotik etorritako argazkilaria batek atera zuela, San Joan Bataiatzailearen Parrokian. Aise imajina daiteke argazkilaria kamara handi baten zapiaren azpian burua izkutatuta eta argi tximistaren ostean, flashak utzitako ke zuria. Gorde ezazu ondo erretratu Juanita, benetan ederra da eta.

Argazia: Juanita Arana.

Berriemailea: Juanita Arana.





**LOGOPEDIA
ZENTRUA
ARRASATE**

HIZKUNTZA ARAZOAK


HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.
Tel.: 79 79 46 • ARRASATE

**PUB
HAIZEA**





SAIOA GIMNASIOA

Zuzendari Teknikoa: Iñaki Muñoz
Kirol Tekniko Gorena • C.N. 3 D.A.N Entrenatzaile Nazionala

AEROBIC

Goizez eta arratsaldez
Ikasiak eta hasi berriak

KARATE

Haurrak (5 eta 9 urte)
Gaztetxoak (10 eta 13 urte)
Helduak

GIMNASTIKA

3. adineko mantenimendua.
Goizez eta arratsaldez

SAUNA

SOLARIUM

MASAJEA

- Osteopatia
- Kirol masajea
- Drenaje linfatikoa
- Kiromasajea
- Ziatikak

MUSKULAZIOA

- Kulturismoa
- Kirol prestakuntza
- Fitness
- Gaiberritzea (errehabilitazioa)

SQUASH



Kontzeziño, z/g, tunela • ARRASATE • Tel: 79 97 31

GRUPO **RKAZ**

sukalde integrala

- Ordenagailuz egindako proiektuak
- Liderrak muntaketan
- Betiko muntaketak



Mitarte, 3 • ARETXABAETA • Tel. / Faxa: 77 04 55


IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK



dena gertu.



FAGOR 

SUKALDE ERAKUSKETA Udala Plaza, z/g • ARRASATE • Tel.: 79 00 43

BAINU ERAKUSKETA Zarugalde kalea, 52 • ARRASATE • Tel.: 79 99 42